

# AIARALDEA *hemen*



**AUTOGLAS-GLAVISTA:**  
**Nork blokeatu du Laudioko lantegiaren eta 240 langileren etorkizuna?** 2-3 or.

**JORGE ETA BILALL:**  
**“Espainiako Txapelketan ikusi dugu zein garrantzitsua den teknika izatea”** 26-27 or.



## Udako uzta, argazkitan

**AIARALDEA 4**  
**Tubacexeko grebari lotutako azken epaiketak egingo dituzte**  
Irailaren 18an hiru gaztek lau urte eta zazpi hilabeteko espetxe zigor eskaerei egingo diete aurre.

**URDUÑA 6**  
**Espetxean hildako bost pertonen gorpuzkiak, euren senideen eskuetan**  
Kartzelako erregistroen arabera, 225 pertsona hil ziren guztira, eta momentuz, 5 identifikatu dituzte

**AIARA 8**  
**Autobus-zerbitzurik gabe hasi dute ikasturtea**  
**Etxaurren Ikastolan**  
Guraso Elkarteak mobilizazio ugari egin ditu azken egunetan zerbitzua berrezartzea Exijitzeko

**KULTURA 22**  
**1.000 euroko lau sormen beka esleitu ditu Aiara Kultur Faktoriak**  
Laguntza jasoko duten sortzaileen artean audioarrak ere badaude eta diziplina anitzak lantzen dituzte

**KULTURA 23**  
**Esti Urresola Espainiako Estatu Oscar Sarietan ordezkatzeko atarian**  
Datorren astean ebatziko dute 20.000 *especies de abejas* filma Oscar sarietan lehiatuko den edo ez

**KIROLA 24**  
**“Etorkizuna klubean hzeitzaileak gara, ez entrenatzaileak”**  
Amurrioko futbol taldean egiten ari diren aldaketek mintzatu da Aitor Llano Aiara Komunikabidearekin

**Ura Bere Bidean Korala**

Euskal abesti itzelen aurkezpena abesbatz bertsioan  
500 ahots baino gehiago eszenan!  
Aurretik jaialdi akustikoan  
**IDOIA · ETS · MAREN · GATIBU**

Irailak 23 · Larunbata · 19:00 · Buesa Arena  
[www.uraberebidean.eus](http://www.uraberebidean.eus)

araba alava  
LABORAL Kutxa  
Fair Saturday Foundation

**HOTEL ORDUÑA PLAZA**  
\*\*\*\*  
Balneario

**ZURE EZKONTZA GUREKIN**

XVIII.mendeko eraikuntza klasikoa  
Aretoaren edukiera: 250 pertsona  
Gonbidatuentzako ostatua  
Ezkontza zibiletarako barruko patioa eta koktela  
**Ikusi gure dosierra:**  
[www.hotelbalneariorduna.com](http://www.hotelbalneariorduna.com)

Foru plaza, URDUÑA · Tel. 945 56 90 38 · [info@hotelordunaplaza.com](mailto:info@hotelordunaplaza.com) · [www.hotelbalneariorduna.com](http://www.hotelbalneariorduna.com)  
@hotelordunaplaza

Mediku zentroa RPS: 314/18

**YANDIOLA**  
HORTZ KLINIKA LAUDIO  
75 urte zurekin

PADI PROGRAMA INPLANTEAK 3D ERRADIOGRAFIK

Karmen kalea 13, behea, LAUDIO (Araba) · 946 72 31 00  
[www.yandioldental.com](http://www.yandioldental.com)



# Nork blokeatu du Autoglas-Glavistaren etorkizuna?

Autoglas-Glavistaren Laudioko lantegia zerutik ikusita. Bere atzean, Guardianen egungo azpiegiturak. **Ruben Ladrón Díaz de Gebara**

Autoglas-Glavistako langileen aburuz, Koch Industries dago enpresaren etorkizuna bermatuko lukeen erosketaren blokeoaren atzean. Enpresa-sare estatubatuar erraldoia da Koch, eta adar ugari ditu sartuta politikan zein aldaketa klimatikoaren negazionismoa sustatzen duten lobby taldeetan, hainbat talde ekologisten arabera.



Testua  
**Txabi Alvarado  
Bañares**

Kinka larrian dago Autoglas-Glavistaren eta bertako 240 langileen etorkizuna. Beharginek mobilizatzeari ekin diote berriro, irailean gertatzen dena berebizikoa izango dela irizita.

Uda hasieran oso bestelakoa zen egoera. Urte hasieratik hartzekodunen aurrelehiaketan egon ondoren, bazirudien enpresaren etorkizuna ziurtatua zegoela. Javier Garcia Marquez inbertsore getxoztarrak (aurretik Guardian Llodioko zuzendaritzako kide izandakoak) Laudioko lantegia erosteko asmoa iragarri zuen. Langileen ordezkarien hitzetan, akordioa formalizatzea baino ez zen falta.

Baina orduan iritsi zen blokeoa. Sindikatuek behin baino gehiagotan azaldu dutenez, Guardianek uko egin

dio lantegiko lurak erosle berriari saltzeari. Kontuan hartu behar da Autoglas-Glavistaren azpiegiturak Guardianen lursail batzuetan daudela, enpresa hori Guardianen parte izan zelako 2020. urtera arte.

Horregatik, langileen aburuz, Guardian da egoeraren erantzule nagusia, multinazionalak “egun batetik bestera eta aurretiazko abisurik gabe” saldu ziolako Glavista “Parter Capital funts-putre suitzarrari” eta, ondoren, uko egin diolako lantegiaren etorkizuna bermatuko luketen lursailak balizko jabe berriari saltzeari.

## **Izen bat: Ron Vaupel**

Pertsona zehatzak daude Guardianek jarritako “blokeoaren” atzean, Autoglas-Glavistako langileen ordezkarien aburuz. Enpresa Batzordeko kideek izen bat jarri dute mahai gainean: Ron Vaupel.

Guardianen mundu mailako presidente eta CEOa

da Vaupel. Baina, datu orokor horrez gain, ez da berririk buruzko askoz informazio gehiago agertzen Interneten, lehen begiratuan behintzat.

Hala ere, berari buruzko datu gehiago topatu daitezke Christopher Leonard ekonomia kazetaria idatzitako Kochland: *The secret history of Koch Industries and Corporate Power* liburuan. Ikerketa lan mardul horretan behin baino ez da Vaupelen izena agertzen, baina azaltzen du enpresa buruak 1990eko hamarkadatik dituela ardurak Koch Industrien (egun Guardianen jabea den enpresa-sarean). Hidrokarbueroen Dibisioko presidentea izan zen, eta taldeko Garpren Korporatiboko Batzordeko ardurak hartu zituen 2002an.

Beste modu batera esanda: Koch Industrien kide beteranoa da, eta talde horrek jarri zuen Guardianeko buru gisa, 2013tik aurrera.

## **Koch Industrien kide beteranoa da Ron Vaupel, sindikatuen aburuz Autoglas-Glavistako etorkizuna blokeatu duen pertsona**

### **Koch Industries**

Enpresa-talde estatubatuar erraldoia da Koch Industries, Charles G. Koch eta David H. Koch anaiek gidatutakoa. 2012an eskuratu zuen Guardianen %44a, Laudioko lantegian 139 langile kaleratzeko prozedura abiatu zen urte berean. Behargin horietako gehienak egun Autoglas-Glavista den ekoizpen-lerrokoak ziren, sindikatuek behin baino gehiagotan nabarmendu dutenez. Dena dela, Enplegua Erregulatzeko Espediente hura bertan behera geratu zen, 60 eguneko grebaren ostean.

2017an Koch Industrienek Guardianen gainontzeko %56a erosi zuen, enpresa osoaren jabe bilakatu. Hala ere, kontuan hartu behar da Koch Industrien adar bat baino ez dela Guardian. Enpresa-sare estatubatuarrek 130.000 langile inguru ditu, mundu osoko 60 herrialdeetan banatuta.

Baina ez da beti hala izan.



## erreportajea

Egun Guardian dena due-la ia 94 urte sortu zen, Villosa izenarekin. Delclaux sendiak sortu zuen enpresa 1934. urtean, eta garapen handia izan zuen hurrengo hamarkadetan, Laudio zein Aiaraldeko enpresa garrantzitsuenetako bat bilakatzeraino.

1984-1985 urteen artean, Guardian multinazional estatu batuarrak erosi zuen Laudioko lantegia, eta orduz geroztik ozeanoaren beste aldean egon da enpresaren zuzendaritza gorena.

**Lobbyei dohaintzak**

Koch Industries enpresa-sare oso ezaguna da Estatu Batuetan, eta bere jabeek ere ospe handia dute, baina ez ona kasu guztietan. Hainbat talde ekologisten arabera (Greenpeace tartean), enpresa-sareak lobby talde ugari finantzatzen ditu, aldaketa klimatikoaren negazionismoa sustatu eta petro-

**Guardian da Aiaraldetik zerura kutsadura gehien igortzen duen enpresa, eta bere jabeek aldaketa klimatikoaren negazionistak diren lobbyak finantzatzen dituzte, Greenpeace eta beste talde ekologista batzuek salatu dutenez**

lio-ekoizleen eta industria kimikoaren interesen alde egiteko. Politikan ere sartu da Koch Industries, bere politika ekintzarako komitearen bidez. Azken hamarkadan milioiak inbertitu ditu, ia kasu guztietan hautagaitza errepublikarren alde.

Ron Vaupelak berak aktiboki babestu egin du Kochen lobby lan hori. Guardianen zuzendariak 2006tik darma Kochen ekintza politikorako komiteari dirua erregularki ematen, eta gaur egun 208,33 euro ematen ditu bi astean behin, Estatu Batuetako Hauteskunde Batzorde Federaleko datuen arabera.

Kochen lobby jardunari lotuta, nabarmentzekoa da Guardian dela zerura kutsadura gehien botatzen duen enpresa Aiaraldean, Igorpen eta Iturri Kutsagarrien Espainiako Erregistroak bildutako datuen arabera. 2021ekoak dira erregist-

**Guardianen mundu mailako zuzendariak 2006tik darma Kochen ekintza politikorako komiteari dirua erregularki ematen, eta gaur egun 208,33 euro ematen dizkio pertsonalki bi astean behin**

tro horrek bildutako azken datuak. Horien arabera, urte horretan Guardianek 108.254,5 tona gas kutsagarri isuri zituen zerura. Ia guztia (107.186,1 tona) karbono dioxidoa izan zen, klima aldaketan eragina duen elementu ezagunetako bat.

Hala ere, aipatzekoa da Guardianek elektroiragazki batjarri zuela 2017an Laudioko lantegian, atmosferara igortzen zuen kutsadura %60 txikitzeko eta, modu horretan, Europako ingurugiro legeria bete ahal izateko. Dirulaguntza bat jaso zuen horretarako Eusko Jaurlaritzaren partetik. Hori egin eta gutxira erosi zuen Koch Industriesek Guardianen %100a.

Aiaraldea Komunikabidea multinazionalaren zuzendaritzarekin harremanetan jarri da Autoglas-Glavistaren aferari buruz galdetzeko, baina momentuz ez du erantzunik jaso.



Guardianeko langileek egun bateko greba egin zuten uztailean, Autoglas-Glavistaren erosketari blokeatu zuten. Aiaraldea.eus



# herriz herri

Aiaraldea

## Irailaren 18an eta urriaren 11n izango dira Tubacexeko grebak eragindako azken bi epaiketak



Auzipetu guztien absoluzioa exijitzeko dinamika jarri dute martxan. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
Aitor Aspuru Saez

**Astlehenean hiru gaztek lau urte eta zazpi hilabeteko espetxe zigor eskaerei egingo diete aurre eta urriaren 11n, ordea, bi langilek 14 hilabeteko eta 28 hilabeteko eskaerak izango dituzte euren aurka**

2021ean ia zortzi hilabetez luzatu zen Tubacex enpresako greba Aiaraldean, baina bere eragina ez da gutzit desagertu. Izan ere, irailaren 18an eskualdeko hiru gaztek lau urte eta zazpi hilabeteko akusazioei egingo diete aurre Gasteizko epaitegian.

Ertzaintzak leporatu die talde antolatua greban osatzea istiluak sortzeko, baina gazteek ukatu dituzte akusazioak eta nabarmendu dute ez zutela ezta elkar ezagutzen ere garai horretan. Zehazki, polizia martxoaren 25ean Amurrioko lantegiaren atarian gertatutako listakarren ardura euren gain utzi nahi du. Horrez gain, urriaren 11n beste epaiketa bat egongo da Arabako hiriburuko epaitegian eta kasu horretan bi grebalarik eseriko dira akusatuen aulkian. Biei leporatu diete agintaritzaren aurkako atentua eta lesio arinak eragitea poliziei. Otsailaren 23an atxilotu zituen Ertzaintzak bi langileak Laudioako faktoriaren aurrean gertatutako protestetan, zeinetan istiluak sortu ziren beharginek eserialdia egin ostean. Udan zerbait mobilizazio antolatu dituzte auziperatuek eta azken ekitaldia irailaren 13an izan zen, zeinean guztien absoluzioa aldarrikatu zuten. Epaiketak

diren egunetan elkarretaratzeak egingo dituzte epaitegien aurrean.

### Beste bi epaiketa aurretik

Edonola ere, hauek ez dira langatazkari lotutako lehen epaiketak. Hain zuzen, bi hitzordu horiekin espero dute errepresio aroa amaitutzat jotzea epaitegietan, aurretik beste bi behargin ataka berean egon baitziren.

Lehenengo grebalariek 2022ko azaroaren 7an deklaratu zuten epailearen aurrean eta absoluzioa lortu zuten. Hain zuzen, epaileak zalantzan jarri zituen Ertzaintzaren bertsioaren hainbat puntuetan eta Amurrioko lantegiko kidea errugabetzat jo zuen. Berez, emakumeak poliziek leporatzen zioten agente bat kolpatzea 2021eko ekainaren 17an Amurrioko epaitegien aurrean egindako elkarretaratze batean.

Beste epaiketa aurten izan da, ekainaren 15ean, eta kasu horretan Laudioako beste langile batek 21 hilabeteko espetxe zigor eskaerari egin zion aurre. Ertzaintzak agintaritzaren aurkako atentua eta erresistentzia leporatu zizkion, baina epaileak bakarrik eman zuen frogatutzat erresistentzia erakutsi zuela beharginak atxilotzen zuten bitartean. Hala ere, Tubacexen lan egiten duen audioarrakhelegitea aurkeztu du.

Amurrio

## ESK sindikatuak iruzurtzat jo du Tubos Reunidoseko lan-erregulazio espedientea

Testua  
Aitor Aspuru Saez

zortzigarren espedientea izango dela irailaren lehen hasi zen

ESK sindikatuak oharra zabaldu du adierazteko Tubos Reunidos enpresako lan-erregulazio espedientea iruzurra dela. Langile-erakundearen aburuz, neurri hori zilegia ez den moduan baliatu du konpainiak, hau da, etekinak handitzeko.

ESK-kgogoratu du enpresak 54,5 milioi euroko mozkin garbia lortu duela 2023ko lehen sei hilabeteetan, 87 milioiko EBITDArekin, 333 milioiko negozio-zifrarekin eta %36ko hazkundearekin. Datu horien ondoren, enpresak 6 hilabeteko aldi baterako lan-erregulazioa ezarri du, lanaldiaren % 50eko gehieneko eraginarekin Amurrioko lantegian.

Konpainiak argudiatu du aurreikuspen txarrak daudela merkatuan eta sei hilabeteko tartea erabiliko du inbertsioak eta obrak egikaritzeko Amurrioko faktorian bertan.

Sindikatuaren aburuz, ez dago arrazoirik espedientea ezartzeko, eta 790 beharginen lanaldi murrizketak bilatzen duena da mozkinak handitzea, langileen eta bitarteko publikoen kalterako: "Plan horren ordaintzaileak langileak izango dira, soldaten murrizketekin eta langabezia-prestazioaren gastatzearekin, bai eta herritar guztiak ere, SEPEk egin behar ko dituen ordainketekin".

Gogoratu beharra dago azken urteetan enpresan ezarriko den

### Kontraesanak

Halaber, ESK-k begien bistan dauden kontraesanak azpimarratu ditu. Alde batetik, enpresak espedientea negoziatzean eskaini dituen soldata gehigarriak: "Enpresaren egoera txarra baltiz, ez zukeen soldata-osagarri eskainiko trukerako txanpon gisa, sindikatuak aldi baterako lan-erregulazioa eta enpresak azaldutako arrazoiak onar zitzaten".

Bestetik, lana erregulatzeko neurriaren hirugarren hilabetean enpresak aurreikusitako altxaritegiko txandak handitzea: "Trapagarango lantegia ere lingotez hornitzeko gehikuntzak ekarriko duen ekoizpen-igoeraren ondorioz. Une horretatik aurrera, Amurrioko altxaritegia izango da lehengaien hornitzaile bakarra".

Azkenik, Administrazioaren jardura ere kritikatu du sindikatuak. Izan ere, Tubos Reunidosek dirutza jaso du ICO eta SEPIren birtartez eta, langile-erakundearen iritziz, instituzio publikoak ez dira ari enpresaren portaera ikuskatzen. Bide batez, ESK-k arbuia du Tubos Reunidosen eta enpresa handien jokaera erakunde publikoetako dagokienez, etengabekritikatzen baitituzte eragile publikoen esku hartzeak, baina aukera duten bakoitzean diru publikoa eskatzen dute euren patrikak betetzeko, sindikatuaren aburuz.



Sindikatuaren mobilizazio baten irudia. Tubos Reunidoseko langileak



## Amurrio

## Euskara arloan jardunaldi osoko langilea izatera konprometitu da Amurrioko Udala

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Uztailaren 31n bildu zen Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Amurrioko Udalarekin, euskara teknikari lanpostua ezabatze-ko erabakiaren inguruan hitz egiteko. Bileran horretan esandakoak azaldu zituen euskararen normalizazioaren aldeko eragileak, adierazpen publiko baten bidez.

Kontseiluko kideen ustez, bileran "agerian" geratu zen "desadostasun nabarmenak daudela" eurek eta Udal Gobernuak egoerarengainean eginiko irakurketen artean. "Udal lanpostu-zerrendatik (LPZ) Euskara Teknikari lanpostua ezabatu dela egitate bat da, baina egitate horren balorazio arras ezberdina egin genuen bileran", azaldu zuten kontseiluko kideek.

"Udal Gobernuarentzat barne mailako berrantolaketa bat da, euskara arloari kalterik egiten ez diona, lanpostuaren izendapenetik harago, euskara teknikariaren funtzioak beste udal teknikari batek betetzen baititu. Euskalgintzarentzat, berriz, larria da erabakia eta mezu zuzena bidaltzen du: euskararen normalkuntzarako teknikaririk ez da behar", gaineratu zuten.

Zerbitzu Soziokulturaleko Koordinatzailea arduratzen da gaur egun Amurrioko Udalaren eus-

kara arloaz, eta lanpostu horren gainean ere eztabaidatu zuten asleheneko bileran. "Udal Gobernuak pertsona hori euskara teknikari gisa hartzen duen bitartean, Kontseiluak euskarari eman diezaiokeen denbora ez-nahikoa dela irizten dio". Gauzak hala, euskalgintzako kideek proposamen zehatzazuzatu zuten bileran: koordinatzaile horrek kontratuan jasota dituen funtzioak publiko egitea.

Horren aurrean, betiere Kontseiluaren arabera, Txerra Molinero alkateak argudiatu zuen euskarari laguntzeko bidea ez dela "funtzionario gehiago izatea", eta "kanpo kontratazioak" defendatu zituen baliabide falta konpontzeko aukera moduan.

### Udalaren konpromisoa

Desadostasunak desadostasun, akordioetara iritsi ziren uztaileko bileran. Kontseiluaren aburuz, alkateak konpromiso zehatz bat hartu zuen: "Amurrioko Udalak hilabeteko epean euskara arloan %100ean jardungo den jardunaldi osoko langilea izatea, langile horren kontratuan soilik euskara arloko funtzioak agertuko direlarik".

Kontseiluak ontzat eman du konpromiso hori eta, gauzak hala, bertan behera utzi ditu pentsatuta zituen salaketa ekimenak, "behin-behinean".

## Artziniega

## Artziniegako Udalak milioi bat euro baino gehiagoko dirulaguntza jasoko du Kultura Etxea eta dorrea konpontzeko

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Artziniegako Udalarik 700.000 euroko dirulaguntza bideratzea onartu du Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak udan. Zehazki, Kultura Etxea eta Ortiz de Molinillo y Velasco Dorrea eraberritzeko lanak ordaintzeko ba-

liatuko dute diru hori. Horri gehitu behar zaio beste 450.000 euro Leader programatik eta Next Generation funtsetatik helduko direla.

Hain zuzen, Kultura Etxea egokitzen eta hobetzen ari dira une honetan. Dorrea, aldiz, hotel moduan ireki nahi dute.

Kultura Etxean aldatu nahi di-

tuzten elementuak kentzeari ekin diote jadanik eta abuztuan hondakin guztiak eramango dituzte, irailan bertan lanekin hasteko.

Esku hartzearen xedea da egitura egonkortzea, irisgarritasunabermatzea, energia eraginkortasuna hobetzea, edukiera handitzea eta espazioaren banaketa aldatzea.

# YOU YOU Irrintzi

AHOTS PRAKTIKA  
TRADIZIONALAREN  
BEGIRADA BERRI BAT.

Sormen laborategiak  
nazioarteko adituekin  
THE YOUYOU GROUP



**Datak**  
Irailaren 18tik 20ra  
eta urriaren 11tik 15era

**Info eta izen ematea**  
kulturfaktoria.eus/youyou-irrintzi



**Zalantzak argitzeko**  
kultura@aiaraldea.eus  
633 51 73 83  
@kultur.faktoria

**AIARALDEKO  
IRRINTZILARIENTZAT  
ZABALDUTAKO DEIALDIA**



OFICINA CENTRAL  
Paseo de la Libertad, 114 01001 Amurrio (Bizkaia)  
www.cuadraproject.com

T. 945 890 804  
info@cuadraproject.com



**CuadraBus**



newpolyphonies





# herriz herri

Urduña

## Urduñako espetxe frankistan hildako bost pertsonen gorpuzkiak, euren senideen eskuetan



Hildakoetako baten senidea, omenaldian eginiko lore eskaintzan. [Aiaraldea.eus](https://www.aiaraldea.eus)

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Ekitaldi hunkigarri bezain esanguratsua egin zuten uztailearen 29an Urduñako Duintasunaren Kolunbarioan. Duela urtebete inauguratu zen monumentu hori, hiriko hilerriaren alboan. Izan ere, hobitegi horretan topatu dituzte Urduñako espetxe frankistan hildako preso hainbat gorpuzki. Guztira, 71 gorpuen arrastoak aurkitu dituzte orain arte eginko bi indusketetan (14 gorpuzki 2014an eginko indusketetan topatu zituzten, eta beste 57 iazko abenduan eginkoan).

Horietako bosten identitatea zehaztu ahal izan dute, DNA frogen bidez. Hala ere, kartzelako erregistroen arabera, 225 pertsona hil ziren guztira, eta 3.891 preso igaro ziren orotara bertatik.

Hain zuzen, bost pertsona horien identifikazio prozesuaren azken urratsa burutu zuten uztaileko ekitaldian, topatutako hezurak euren senideei entregatuta. Hildako horietako lau Badajoz probintziakoak ziren: Fructuoso Llorens Tolesano, Alfonso Tena Prieto eta Manuel eta Salvador del Amo Jimenez anaiak. Bosgarrena, aldiz, Toledo probintziakoak zen: Alejandro Gomez Hidalgo.

Bostak ziren nekazariak, eta antzeko egoeratan atzeman eta espetxeratu zituzten. Fructuoso Llorens Tolosano etxetik atera zuten eta bere familiak ez zuen haren beste berririk

### Kartzelako erregistroen arabera, 225 pertsona hil ziren guztira, eta momentuz, 5 identifikatu dituzte

izan, orain arte. Bere alabetako bati (Juana Llorens, 94 urtekoa) atera zioten DNA lagina, eta modu horretan identifikatu dute gorpua.

Manuel eta Salvador Del Amo Jimenez anaiei, aldiz, 30 eta 20 urteko espetxe zigorrak ezarri zikieten, hurrenez hurren, "matxinada delitua" egotzita. Manuelen 95 urteko semearen eta iloba baten DNA baliatu dute bi gorpuzkiak identifikatzeko.

Alejandro Gomez Hidalgo, aldiz, 12 urteko kartzela-zigorra ezarri zioten Toledon eginko gerra kontseilu batean, eta 1939ko abenduaren 5ean eraman zuten Urduñako Espetxe Zentralera. Alfonso Tena Prieto de Don Alvaro, aldiz, handikegun batzuetara iritsi zen hirira.

#### Omenaldia kolunbarioan

Ehunik gora lagun bertaratu ziren omenaldira. Aipatutako bost hildakoen senideez gain, hainbat ordezkari politiko ere gerturatu ziren: Iker Santocildes Urduñako alkatea, Jose Antonio Rodriguez Ranz, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordea, eta Aintzane Ezenarro, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria.

Aipatutako bost hildakoen senideek orain arte luzatutako bilaketa amaitu ahal izan dute, baina prozesuak aurrera darrai. 50 familia baino gehiagoren DNA laginak hartu dituzte, eta modu horretan espero dute topatutako beste 66 gorpuzkiak identifikatzea.

## Landatas eta Maria Dolores Madaria auzoetako etxebizitzaren birgaitzea, aurrera

Testua  
**Jone Gartzia Gerra**

Uztailearen 17an amaitu zen enpresek zerbitzu-sariak aurkeztu eta proposamenak egiteko epea. Hurrengo urratsa komunitate bakoitzean zein ikerlan egin nahi duten hautatzea izango da; izan ere, Kudeaketa Batzorde bakoitzak egokiena irizten duena aukeratu dezake. Batzorde horiek Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta atari bakoitzeko ordezkari batak osatzen dituzte eta horien bidez hartu dira erabakiak prozesu osoan zehar. Hori dela eta, posible da ikerketa bat baino gehiago hautatua izatea, batzorde bakoitzak bana hautatu baitezake.

Gogoratu beharra dago urtarirlean ireki zituztela bi auzoetan hurbileko bulegoak, auzokideei orientazio eta informazio zerbitzuak emateko helburuarekin. Tarte honetan banakako zein taldeko bilerak egin dituzte komunitateetako lehendakariak, jabeekin, arkitektoekin eta gainerako eragileekin.

#### Hurrengo urratsak

Maria Dolores Madaria auzoan 90 etxebizitza sartzen dira hiri-berroneratze ekimenaren barruan, eta Landatasen 60. Etxebizitza horiek biltzen dituzten 11 komunitatek erabaki dute

proiektuen idazketa fasearekin aurrera egitea. Behin proiektuak aurkeztuta, lanekin aurrera egin ala ez erabaki beharko dute.

Prozesuan aurrera ez egitea erabakitzen badute, Eusko Jaurlaritzak Berpiztu funtsen bidez ematen duen diruaginerako komunitateen artean banatuko litzateke. Izan ere, Udalak banatzen du diru hori, eta partida finkoa da. Europar Batasunak ematen duen laguntza, ordea, etxebizitza bakoitzari esleitzen zaio eta, hortaz, baten batek prozesua etetea erabakiko balu dirua itzuli beharko luke. Next Generation funtsetatik banatuko du Europar Batasunak hiri-berroneratzeko proiektu hauetarako dirua.

Next Generation funtsen dirua eraikinen ingurutzatzailea (fatxadak, estalkia, hegala...) hobetzeko esku-hartzeetarako bideratu daiteke, bai eta energiaren kontsumoa murrizteko bitartekoetara ere, esaterako, banakako galdarak errendimendu handiko gas naturalekoekin ordeztuko, eguzki-panel termikoen bidez ur beroa ekoizteko sistemak instalatzeko edo berokuntzako eta ur beroko sistemak instalatzeko. Horrez gain, beste diru-iturriak eraikinen irisgarritasuna hobetzeko bideratuko dira, hala nola igogailuak edo arrapalak instalatzeko.

## Udazkeneko 'Bono denda' kanpaina, abian

Testua  
**Jone Gartzia Gerra**

Azaroaren 30era arte -edo bonuak amaitu arte- iraungo du Urduñako 'Bono denda' kanpainaren VII. edizioak. Oraingoan 25 saltoki atxiki dira dinamikara. Erosleek 5 euroko deskontua izango dute gastatzen dituzten 25 euro bakoitzeko, bonuak agortu arte.

Pertsona bakoitzak gehienez bi

bonu eskuratu ditzake eta parte hartzen duen saltoki bakoitzak 50 bonu izango ditu eskuragarri.

Udalak azaldu duenez, kanpainak 31.500 euroko eragin zuzena izango du udalerrian atxiki diren 25 saltokietan. Hauek uztailearen 28ra bitarte izan zuten izea emateko tartea eta udaberriko kanpainan parte hartu zuten automatikoki batu dira zerrendara, kontrakorik adierazi ez badute.



## Baranbio

## Abiadura murrizteko elementuak jarriko dituzte Baranbion datorren urterako



Hainbat protesta egin dituzte bizilagunek segurtasuna exijitzeko. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Arabako Foru Aldundiak abiadura murrizteko elementuak jarriko ditu Arabako zenbait herri eta errepideetan, Api Movilidad SA enpresari esleitu-tako kontratuaren bidez. Orotara 602.580 euro bideratuko ditu Foru Gobernuak hainbaterrepi-de tarteetan seinale horizontal eta bertikalak jartzeko, ibilgai-luen abiadura moteltzeko helburuarekin.

Aiaraldean Baranbion egin-go dute esku hartzea, ibilgai-luek herri barruan duten abia-

dura murrizteko asmoz. Lanak 2024ko urte amaieran amaitzea aurreikusi dute.

### Mobilizazioak Baranbion

Hain zuzen ere, Baranbio-ko bizilagunek hainbat mobilizazio egin zituzten 2020an eta 2021ean herria zeharkatzen duen errepidearen segurtasuna bermatzea exijitzeko erakunde publikoei.

Bi aldarrikapen nagusi atera zituzten kalera: kamioien trafikoa autopistatik desbideratzea eta herritarren segurtasuna bermatuko lukeen espaloia eraikitzea.

## Maroño

## Maroñoko urtegiaren paisaia hobetzeko lanak esleitu ditu Foru Aldundiak

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Maroñoko urtegiako begirato-kiaren eremua eta Letobarri parkera joateko oinezkoentzako zidorra lehengoratuko ditu Arabako Foru Aldundiak. Erakunde publikoak udan esleitu ditu horretarako lanak.

Esku hartzearen helburua in-

gurunearen paisaia baldintzak hobetzea da.

Hauk dira egin nahi dituzten lanak, besteak beste: hondakinak eta isurketak kendu, saneatzeko tratamenduak egin eta urbazterreko landaredia hobetu, landare lurra eman substratu eskaseko eremuetan, eta ereiteak eta zuhaitz eta zuhaixka autoktonoen landaketak egin iragazki berdera-

ko urbazterreko zerrendetan eta babes itxituretan.

Lan horiek egiteko aurrekontua 128.496,62 eurokoa da, BEZa barne, eta, epea, hiru hilabetekoa. Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak Aiaraldeko Berehalako Jarduera Planean jasotako "Ingurumena eta mugikortasun jasangarria" proiektuaren esparruan sartzen da egitasmo hau.

Umeen gunea eta itzulpengintza zerbitzua eskainiko dira.

INDARKERIA  
MATXISTAREN  
AURKA

B

AIARALDEA  
BOR-BOR  
JARDUNALDIAK

Irailak 30, larunbata, 10:30 · Aiaraldea Ekintzen Faktorian

10:30 SOLASALDIA(K)

INDARKERIA MATXISTAREN  
AURKA, NON GAUDE?

Bor-bor, Iratxe Letona

ETA GIZONEK ZER?

Hiruki Larroxa, Ibai Fresnedo

12:00 AURKEZPENA

INDARKERIA MATXISTAREN  
AURKAKO ESKUHARTZE GIDA

Feminismo Faktoria

12:30 TAILERRA

FAKTORIATIK LOKATZERA

Tailer praktikoa: kasu eta espazio batzuetan eskuhartzeko tailerra.

14:00 AMAIERA

EKITALDI GUZTIAK DOAKOAK  
ETA IREKIAK IZANGO DIRA.

Laia araba álava  
foru aldundia diputación foral

Doako ethez etheko zerbitzua  
0km produktuak · Garaiko frutak eta barazkiak  
Egunero lza okindegiko ogia  
Pertsonalizatutako fruten eta barazkien saskiak

945 092 550 · Landako kalea 1, Amurrio · @frutadenda\_selene



# herriz herri

## Arespalditza

### Atxa jauregiko kapera eraberritzeko 10.528,22 euro eman ditu Aldundiak

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Arabako Foru Aldundiak diruz lagunduko du Arespalditzako Atxa jauregiko kaperaren eraberritzea. Eraikin pribatua da, eta jabeek 21.056,43 euroko aurrekontua aurkeztu zuten guztira Arabako erakundeak abian jarritako kultura ondare higie-

zinean zaharberrikuntzako diru-laguntzara.

Guztira, 38eskaera aurkeztuziren diru laguntza deialdi horretara, eta 13 norbanakori eman go diete dirua, Arabako 9 ondare eraikinetan esku hartzeko. 140.000 euro banatuko ditu Arabako Foru Aldundiak guztira, 1.000 eurotik 30.000 eurora doazen zenbatekoekin.

#### Hainbat mendeetako historia

Historia luzea du Arespalditzako Atxa jauregiak. 1639. urtean sortu zela kalkulatu da, eta 1823. urtean berreraikizuten, gaur egun duen egitura hartuz. Jauregiak gain, eraikinak beste hainbat azpiegitura ditu bere inguruan, urteez poderioz gehituz joan direnak. Horietako bat da aurki berrituko den kapera.

## Aiaraldea

### 90.000 euro Erretes Tudela eta Garrastatxuko baselizetara



Erretes de Tudelako eliza. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Arabako Foru Aldundiak jakinarazi du 90.000 euro bideratuko dituela Erretes Tudelako eta Garrastatxuko baselizen mantenturako.

Hain zuzen, Erretes Tudelako San Roke ermitan helburua da teiltatua zaharberritzea. Artziniegako Udalararen aurrekontua 93.376,17 eurokoa da eta foru erakundeak 60.000 euroko gehieneko laguntza proposatu du.

Bestalde, Garrastatxuko Pietateko Andra Mariko ermitan, Baranbion, xedea da teiltak aldatzea. Baranbioko Administrazio Batzarraren aurrekon-

tua 49.231,12 eurokoa da eta dirulaguntza, aldiz, 33.477,16 eurokoa. Arabako Foru Aldundiak tokiko erakundeekin elkarlanean egiten ditu esku hartze hauek eta iaz arazoak egon ziren Erretes Tudelaren kasuan.

Izan ere, Joseba Vivanco alka-teak sare sozialetan salatu zuen 21.240,64 euro esleitu zizkietela, "partidako aurrekontu agorpenagatik", nahiz eta ebazpenean 67.230,84 euro aitortu. Hortaz, obrak egin gabe utzi zituzten, diru nahikorik ez zegoelako.

Nabarmentzekoa da tokiko erakundeek ezinbestekotzat jotzen dituztela zaharberritze hauek, utzikieriak ondare historikoa eramatea erraztu baitiela-purrei, Erretes Tudelan bereziki.



Garrastatxuko baseliza. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Arte  
**HARTZE**  
ZIKLOA

2023

URRITIK  
ABENDURA  
SORMENA  
HOSTOZ  
HOSTO



BABESLEA

araba álava  
Euzko Legebiltzarra

LAGUNTZAILEAK



MIREN NARBAIZA, ITZIAR GARALUZE, PATXI ZUBIZARRETA, AMAIA BONO, EDU ZELAIETA, THE YOYUO GROUP, METROKOADROKA SORMEN LABORATEGIA, ROUGE ELEA KONPAINIA, PATAS DE GANSA KOLEKTIBOA, MEJILLON TIGRE... ETA GEHIAGO!

BONOAK SALGAI 35€  
KULTURFAKTORIA.EUS





## Aiara

Mobilizazioetan murgilduta daude Etxaurren Ikastolako familiak autobus zerbitzua berrezartzea eskatzeko. Eusko Jaurlaritzari eta garraio-enpresei exijitu diete konponbidea.

# Etxaurren Ikastolako familiek autobus zerbitzuaren faltak "egunerokotasuna jasanezina" egiten duela salatu dute



Manifestazioa egin zuten asteartean Etxaurren Ikastolako familiek. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Mobilizazio artean igaro dituzte Etxaurren Ikastolako familiek ikasturteko lehenengo egunak. Izan ere, ikasleek autobus zerbitzurik gabe jarraitzen dute, Eusko Jaurlaritzaren eta garraio-enpresen arteko desadostasunak tarteko.

Familiek azaldu dute "mirakuluak egiten" jarraitzen dutela seme-alabak ikastetxera eramateko, eta egoerak "egunerokotasuna jasanezina" bilakatu duela adierazi dute. Jokin Bildarratz Hezkuntza Sailburuari eta garraio-enpresei zuzendu dizkiete kritikak.

Bildarratz sailburuaren hitzetan garraio-enpresek "familiek bahitu gisa eta xantaia gisa" erabiltzen dituzte, eta horren aurrean familiei egindako kilometroengatik laguntzeko partida bat iragarri du Eusko Jaurlaritzak. "Ez dakigu norzuk sentitzen diren egoera honekin bahituta, baina esaten dizugu Euskal Eskola Publikoko familiek ezin direla eroskeriaz edo apurrez erosten; egoera hau gasolina litro batzuen prezioa baino garestiagoa da. Benetako konponbideak behar ditugu", aldarrikatu dute Etxaurren Ikastolako familiek sailburuaren hitzei erantzunez.

Garraio-enpresen jarrera ere kritikatu egin dute gaurko manifesta-

zioaren buruan. Enpresa hauek ia %25eko igoera izan zuten, eta familientzat ulergaitza da batzuentzat "nahikoa dena" beste batzuentzat, ordea, ez izatea. "Ez dakigu erregeiaren prezioa aldatu egiten den probintzia batetik bestera, ezta garraio-konpainia batetik bestera ere; izan ere, horida arrazoi bakarra batzuek beren lana egiten dutela eta beste batzuek irmo ukatzen dutela ulertzeko", azaldu dute Guraso Elkarteak kideek.

Egoera honen ondorioak pairatzen dituztenak Euskal Eskola Publikoko familiek direla azpimarratu du Guraso Elkarteak. "Ez dakigu benetan iruzurrik izan den zerbitzua emateari uko egin dioten enpresen artean; era berean ez dakigu aurreko ikasturteko igoeraren %25a nahikoa den, baina badakigu Eusko Jaurlaritzak enpresa pribatuak azpikontratatu dituzten zerbitzu publikoak kudeatzeko, hala nola, ikastetxeetako garraioa, jantokiak eta sukaldia, enpresen kudeaketa txarraren ondorioaketa Jaurlaritzaren kontrolik eza Euskal Eskola Publikoko ikasleek eta familiek ordaintzen dutela beti.

Iragarri dutenez mobilizazioekin jarraituko dute egoera bideratu bitartean. Astearte goizean bilera egin zuten Guraso Elkarteak kideek hurrengo urratsak adosteko.



**VALENTÍN CAMPO**  
AUTOBUS GIDARIA

## Arazoa enpresekin dago, ez langileekin

*Ikasturtearen hasierarekin batera heldu da polemika. Autobus-enpresa gehienek ez dituzte onartu Eusko Jaurlaritzak ikasleen garraio-zerbitzuak egiteko proposatutako baldintzak. Are nahasmen handiagoa sortzeko, hedabide batzuek albistea kontatu dute esanez "gidarien greba baten ondorioz" zela. Errealitatek urrun dago hori. Langileak ez dira inolako grebarik egiten ari. Arazoa enpresekin da, ez langileekin.*

*Hezkuntza Sailak urtero ateratzen ditu lehiaketara ikastetxeetako ibilbideak. Enpresek, beren interesen arabera, batzuen edo besteen alde egiten dute. Baina ikasturte honetan, enpresek, kontuak egin ondoren, ibilbide gehienak baztertu dituzte, azaldu eta baldintzetan errentagarriak ez direlakoan. Ibilbideen %20 baino gutxiago esleitu dira. Eta uda baino lehen konpondu beharko litzatekeen eztabaida hori guztia denboran luzatu egin da, ikasturtearen hasiera iritsi arte. Horrela, familiek "bahituta" ikusi dute euren burua, eta beste modu batzuk bilatu behar izan dituzte ikastetxeetara iristeko. Aldi berean, komunikabideek bozgorailu mediatiko funtzioa bete dute, iritzi-korrante bat sortzeko euren interesen alde. Baina garraio-enpresek eutsi egin diote, eta uko egin diote zerbitzuak egiteari. Eta garraiorik gabe geratzeko aukeraren aurrean, zer egin du Eusko Jaurlaritzak? Bada nahitaez betearazteko agindu bat eman du, enpresak derrigortzeko aurreko ikasturtean eskaintzen zituzten zerbitzuak ematera, eta horren aurkako helegitea jarri da Justiziaren aurrean.*

*Arazoa hainbat ikuspuntutatik azter dezakegu. Lehenik eta behin, zer egin behar du enpresa batek jada zerbitzu horrekin kontaktatzen ez bazuen bere lan-planean? Eta autobusik edo gidaririk ez badu zerbitzu hori eskaintzeko? Demagun autobus-enpresa batek bost ibilgailu dituela bere gidariekin, eta horientzako lanak dituela. Nola egin behar du? Nondik ateratzen ditu baliabide materialak eta giza baliabideak?*

*Bestalde, zergatik lan egin behar du enpresa batek Eusko Jaurlaritzak esaten duen prezioan? Atera ditzatela zerbitzuak lehiaketan, eta enpresek egingo dituzte kontuak eta erabakiko dute errentagarria zaien ala ez. Enpresek lan egin eta aberastasuna sortu nahi dute. Pleguak onartzen ez badira (agian) errentagarria ez delako da. Autobusek diru asko balio dute, eta enpresa bakar batek ere ez ditu geldirik eduki nahi, geldirik ere gastu handiak dituztelako. Eta, gainera, autobus-enpresak arazoak izaten ari dira pandemiaren garaitik, autobus-flota osoa hainbat hilabetetan geldirik izan baitzuten.*

*Eusko Jaurlaritzak dio autobus-enpresak ikastetxeetako ibilbideak egitera behartuta daudela, "funtsezko zerbitzua delako". Askok eztabaidatu liteke horri buruz, eta hor dago eztabaida juridikoa. Baina, hain funtsezkoa bada, zergatik kanporatzen da eta zergatik ez du administrazioak berak ematen? Askok uste dute administrazioak kontratatu beharreko zerbitzua baino ez dela, beste zerbitzu batzuk bezala.*

*Argi dagoena da funtsezko zerbitzua dela ikasleentzat. Baina funtsezkoak dira baita ere ikastetxeetako elektrizitatea, berogailuetarako gasa, zerbitzu informatikoak... Eusko Jaurlaritzak ere ezarriko al die prezioa enpresa hornitzaileei? Edo enpresek lehia askean erabakitzen dutena ordainduko dute? Merkatu libreko gizartea gara, ala gobernuak arautzen ditu prezioak? Eta, hala bada, prezio guztiak arautzen dira edo batzuk bakarrik?*

*Baina badago benetako arrisku bat oso jende gutxi erreparatu diona. Kontuan hartzen badugu prezio guztiak igo direla (gasolioa, gorpilak, autobusen prezioa, mantentze-lanak, ordezko piezak...) enpresek nondik aterako dute beren etekin ekonomikoa diru-sarrerak mugatzen badira? Argi dago! Langileen lan-baldintzetatik. Soldata beragatik lan gehiago egitera edo soldata txikiagoagatik lan egitera behartuko dituzte. Izan ere, langileok argi daukagu enpresek ez diotela uko egingo pastelaren zatitari.*

*Ikusiko dugu nola konpontzen den gatazka. Espero dezagun, guztion onerako, ahalik eta azkarren bideratzea eta sektoreko langileen lan-baldintzak kaltetu gabe, nahiko zailak baitira dagoeneko.*



# argazki erreportajea

Herriz herri eta udalerriz udalerriz igaro da udako jaien lekukoa, Aiaraldeko kaleek eta plazek gainezka egin dute berriro ere. Aiaraldea Komunikabideko kideak festaz festa aritu dira argazki kamerarekin une guzti horiek biltzeko asmoz.

## Udako jaien maratoniaren ajea iruditan



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Elkargune bilakatu dira beste behin ere Aiaraldeko kale eta plazak. Uda sasoiarekin batera eztanda egin dute auzo eta herrietako jaiek, eta algaraz josi dute eskualdea alderik alde. Herrixka txikienetik hasi eta udalerriz nagusietako festetaraino osagai berdinekin sukaldatu dituzte egun


eta gau luzeetako egitarauak: antolakuntza eta parte-hartzea. Aiaraldeko milaka bizilaguenek euren alea jarri dute, beste behin ere, herritar guztientzako tokia eskaini duten jaiak kozinatzeko, eta emaitza agerikoa izan da.

### Oroimenerako irudiak

Aiaraldea Komunikabideko kazetariak eta kolaboratzaileak festarik festa aritu dira, kaleetan

metatutako poz eta indar guzti hori argazki kamerarekin arrantzatzeko asmoz. Denak ez badira ere, igarotako une asko berriz bizitzeko parada dago aiaraldea. eus atariko argazki galerietan, 2024ko udaren esperoan gauden bitartean.

*Argazkiak: Aimar Gutierrez, Josu Zaldibar, Txabi Alvarado eta Aitor Aspuru*





## argazki erreportajea



**Ishtar**  
English Academy

- Matrikula-epea irekita
- Adin eta maila guztiak

10 urtetik goragoko esperientzia

Ostegieta enparantza 5A, Laudio  
946 548 760 · 654 163 406

@ishtarenglishacademy · www.ishtaracademy.com



# argazki erreportajea





# argazki erreportajea





# argazki erreportajea





# argazki erreportajea





# agenda

2022/09/13  
2022/09/27



## Atxetako eta Latioorroko jaiak hartuko dute *jai maratoniaren lekukoa*

A buztua atzean utzi arren, oraindik ere bada Aiaraldeko herri eta auzoetako jaietaz gozatzeko aukera. Udiako azken asteburua zukutzeko hamaika ekintza programatu dituzte eskualdean, baina epizentroa Laudioko Latioorro eta Arrankudiaga eta Zolloko Atxeta auzoetan egongo da.

### Atxetako jaiak

Irailaren 16an jaurtiko dute Atxetako jaieta-ko lehenengo suziria. 12:00etan izango da txupinazoa, eta jarraian haurrentzako jolas partekoa atonduko dute, tailer, puzgarri eta beste-lako jolasekin. 12:30ean marmitako eta patata tortilla txapelketari emango diote hasiera. Epaia-mahaia 14:30ean iragarriko ditulapiko irabaz-

leak eta parte hartzaile guztiek batera bazkalduko dute. Arratsaldean, haurrentzako hainbat jarduera eskainiko dituzte eta Mirrikik dantzan jarriko ditu auzoko gazteenak. Fesetako lehenengo eguna agurtzeko odolosteak jango dituzte eta Iratzar erromeriak dantzaldia eskainiko du 22:30ak aldera.

Igandean, irailaren 17an, meza eskainiko dute 12:30ean eta herri bazkaria egingo dute 14:30ean. Elvi Bentrilokuak arratsaldeari umore puntua jarriko dio, 18:00etan. Jaiak XXII. Igel-toka txapelketarekin agurtuko dituzte.

### Latioorroko jaiak

Irailaren 15etik 17ra ospatuko dituzte Latioorro auzoko jaiak, eta festa goizeko ordu txiki-tara

arte luzatuko da ostiral zein larunbatean. Lehen gauean Uti, Oxabi erromeria eta DJ Teso arduratuko dira parranda giroteaz. Bigarrenegun, al-diz, Los Zopilotes Txirriaos, Lehian erromeria eta DJ Masa igoko dira oholtzara.

Gainontzeko egitarauak ohiko eskema jarraituko du, baina badira Latioorroko Jai Batzordeak prestatuturiko ekintza berriak ere. Ekintza horietako bat izango da txirringularitza kronoigoera. Arabako Itzuliaren 45. edizioa izango da, kadeteen kategoriakoa. Parte hartzaileek hiru kilometroko ibilbidea egin beharko dute San Bartolomeraingo.

Aurrera begira, "auzoko bazterrak betetze-ko modu berriak" identifikatu eta asmatu nahi ditu jai batzordeak.

## ATXETAKO JAIAK

**09.16 Larumbata**  
12:00 ARRANKUDIAGA  
AZOKA ETA TXUPINA  
Atxeta

**09.16 Larumbata**  
13:00 ARRANKUDIAGA  
MARMITAKO ETA TORTILLA  
TXAPELKETA  
Atxeta

**09.16 Larumbata**  
14:30 ARRANKUDIAGA  
HERRI BAZKARIA  
Atxeta

**09.16 Larumbata**  
16:30 ARRANKUDIAGA  
MAKILLAJEA, PUZGARRIAK  
ETA JOLASAK  
Atxeta

**09.16 Larumbata**  
17:00 ARRANKUDIAGA  
BURUHANDIAK  
Atxeta

**09.16 Larumbata**  
17:30 ARRANKUDIAGA  
MIRIKIREKIN JOLASTU ETA  
DANTZATU  
Haurrentzako ikuskizuna  
Atxeta

**09.16 Larumbata**  
18:30 ARRANKUDIAGA  
TXOKOLATE JANA  
Atxeta

**09.16 Larumbata**  
19:00 ARRANKUDIAGA  
INGUMA  
Atxeta

**09.16 Larumbata**  
21:00 ARRANKUDIAGA  
ODOLOSTE JANA  
Atxeta

**09.16 Larumbata**  
22:30 ARRANKUDIAGA  
IRATZAR ERROMERIA  
Atxeta

**09.17 Igandea**  
14:30 ARRANKUDIAGA  
HERRI BAZKARIA ETA  
BINGOA  
Atxeta

**09.17 Igandea**  
18:30 ARRANKUDIAGA  
EVIL BENTRILOKUOA  
Atxeta

**09.17 Igandea**  
18:30 ARRANKUDIAGA  
XXXII. IGEL-TOKA  
TXAPELKETA

**09.15 Ostirala**  
20:00 LAUDIO  
ANTZO ETA PANTXA,  
"GUREKIN KONTATU"  
Haurrentzako ikuskizuna  
Untzueta Plaza

**09.15 Ostirala**  
21:00 LAUDIO  
UTI, OXABI ETA DJ TESSO  
Txosnagunea

**09.16 Larumbata**  
08:00 LAUDIO  
XIII. MENDI MARTXA  
Txosnagunetik

**09.16 Larumbata**  
11:00 LAUDIO  
PUZGARRIAK ETA  
HAURRENTZAKO JOLASAK  
Kirikiño Atsedeen Taldea  
Kamaraka Kalea

**09.16 Larumbata**  
12:00 LAUDIO  
IGEL-TOKA TXAPELKETA  
Arantzar Kalea

**09.16 Larumbata**  
14:30 LAUDIO  
HERRI BAZKARIA  
Txosnagunea

**09.16 Larumbata**  
16:30 LAUDIO  
BINGOA  
Txosnagunea

**09.16 Larumbata**  
16:30 LAUDIO  
MUS TXAPELKETA  
Gorbea Kalea

**09.16 Larumbata**  
19:00 LAUDIO  
TXAPEL ETA ALPARGATA  
JAURTIKETA  
Gorbea Kalea

**09.16 Larumbata**  
20:00 LAUDIO  
UNTZUETA DANTZA TALDEA  
Txosnagunea

**09.16 Larumbata**  
21:00 LAUDIO  
LOS ZOPILOTES TXIRRIAOS,  
LEHIAN ETA DJ MASA  
Txosnagunea

**09.17 Igandea**  
08:00 LAUDIO  
LATIORROKO XXXII.  
MARMITAKO TXAPELKETA  
Pagolar, Gorbea  
eta Oleta kaleak

**09.17 Igandea**  
10:00 LAUDIO  
TXIRRINGULARITZA  
LASTERKETA  
Arantzar Kalea



## Irailaren 24an izango da Urduñako **Herri Krosa**



Irailaren 24an, igandean, lehiatuko da Urduña Hiria Herri Krosaren XVII. edizioa. Ohi bezala, hiru proba nagusi egongo dira. 11:30ean izango da 10 kilometroko krosa. Txikientzako ibilbidea ere prestatu du hiriko elkarrekin; hain zuzen, 1.500 metroko zirkuitua osatu behar du dute haurrek, eta txikiak 600 metrokoa. Izen-ematea zabalik dago Internet bidez, eta irailaren 19an eta 20an Alondegian.

## Artzain Egumaren edizio berri bat ospatuko dute irailaren 17an Amurrión



Artzain Egumaren XXIX. edizioa ospatuko dute igandean Amurrión. Ohikoan bezala, jardueraz betetako egitaraua prestatu dute eskualdeko eta Arabako sektora omentzeko. Aurritik, irailaren 16an, XIX. kanpai-kontzertua eskainiko dute Santa Maria elizako kanpandorretik. Ekintzak 10:00etan abiatuko dira, eta Juan Urrutia Plazan eta Amurrioko parkearen arten bilduko dute egitarauaren zatirik handiena. Besteak beste, ardi latxen eta artzain txakurren erakustaldiez, argazki erakusketaz,

produktu gastronomikoen dastatzeaz eta ardisatza azokaz gozatzeko aukera izango dute bisitariak. Horrez gain, artilemozketak eta gaztagile erakusketak egongo dira ere, antzinarako ofizioak gertutik ezagutzeko parada eskainiz. Urtero bezala, eskualdeko hainbat abeltzain omentzeko dituzte irailaren 17ko ospakizunean. Agintariek 11:30ean egingo diete haurtera omenaldia jasoko dutenei, eta 13:00etan egingo dituzte eguneko zeharrekoko lehiaketen sari banaketa.

## Erdi Arora egingo du bidaiak Artziniégak datorren irailaren 16an



Artziniégako Antzinako Azokaren edizio berri bat ospatuko dute larunbat honetan -irailak 16-. COVID-19ak eragindako etenaz geroztik herritar talde batekin dio azoka ospetsuaren antolaketari, eta aurtengo edizioan artzain postuen eskaintza jarri dute indarra, eta iaiz baino postu gehiago egongo dira aurtengoa.

Aurtengoa XXIV. edizioa izango da, Euskal Herrian ospatzen den antzinako azokarik zaharrenetarikoa da Artziniégakoa. Herritarrek zein bisitariak egitarau oparoz gozatzeko aukera izango dute goizeko lehen orduetik gaueko ordu-txikiak arte.



## Futbol gañdosia Okondo Cup lehiaketan

Irailaren 16an kimu kategoriako futbolariek Okondo hartuko dute. Izan ere, futbol-7 diziplinako Okondo Cup norgehiagoka jokatu dute eta ia hamabi orduz luzatuko da jarduerak. Hamasei talde arabar, bizkaitar eta gipuzkoar batuko dira futbol zelaietan, nor baino nor. 09:00etan abiatuko dute lehiaketa eta pilotak ez du atsedenaldirik izango arratsaldeko zortziak arte.

18:30 ARRANKUDIAGA  
**XXXII. IGEL-TOKA  
TXAPELKETA**  
Atxeta

### GOIKIRIKO JAIK

**09.16 Larumbata**  
20:30 OROZKO  
**AFARI HERRIKOIA**  
Goikiri Auzoa

**09.16 Larumbata**  
22:00 OROZKO  
**JAIKIDE DISKOFESTA**  
Goikiri Auzoa

**09.17 Igandea**  
12:00 OROZKO  
**MEZA**  
Goikiri Auzoa

**09.17 Igandea**  
13:00 OROZKO  
**UNZTUETA DANTZA  
TALDEA**  
Goikiri Auzoa

**09.17 Igandea**  
13:30 OROZKO  
**TORTILLA ETA PAELLA  
LEHIAKETA**  
Goikiri Auzoa

**09.17 Igandea**  
17:00 OROZKO  
**TXOKOLATE JANA ETA  
HERRI KIROLAK**  
Goikiri Auzoa

**09.17 Igandea**  
18:30 OROZKO  
**IRATZAR ERROMERIA**  
Goikiri Auzoa

**09.17 Igandea**  
19:00 OROZKO  
**IRRINTZI TXAPELKETA**  
Goikiri Auzoa

### LATORROKO JAIK

**09.15 Ostirala**  
18:00 LAUDIO  
**DANBORRADA AUZOAN  
ZEHAR**  
Txosnagunetik

**09.15 Ostirala**  
19:00 LAUDIO  
**TXUPINAZOIA ETA  
BURUHANDIAK**  
Txosnagunea

**09.15 Ostirala**  
19:00 LAUDIO  
**LANKAIETAKO LAGUNAK**  
Kalejira  
Auzoan zehar

10:00 LAUDIO  
**TXIRRINDULARITZA  
LASTERKETA**  
Arabako Itzulia  
Campa del Burro

**09.17 Igandea**  
12:00 LAUDIO  
**SAN ROKE MUSIKA BANDA**  
Kalejira  
Auzoan zehar

**09.17 Igandea**  
13:00 LAUDIO  
**ARLOTEAK**  
Poteoa  
Auzoan zehar

**09.17 Igandea**  
13:00 LAUDIO  
**ITXARKUNDIA DANTZA  
TALDEA**  
Untzueta Plaza

**09.17 Igandea**  
15:00 LAUDIO  
**MARMITAKO BAZKARIA**  
Txosnagunea

**09.17 Igandea**  
18:00 LAUDIO  
**GAUARGI ERROMERIA**  
Txosnagunea

### MUSIKA

**09.15 Ostirala**  
20:30 URDUÑA  
**TUTUKA**  
Sutegi Taberna

**09.16 Larumbata**  
09:45 AMURRIO  
**XIX. KANPAI KONTZERTUA**  
Andra Maria Parrokia

**09.16 Larumbata**  
20:00 LAUDIO  
**3 FROM HELL, NEGRA  
CALAVERA, AGUR,  
MALESTAR, SANNGRE ETA  
MEMENTO MORI**  
Sorgin taberna

### AZOKAK

**09.16 Larumbata**  
10:00 URDUÑA  
**ANTIGOALEKO ETA  
BILDUMAZALEEN X. AZOKA**  
Foru Plaza

**09.16 Larumbata**  
10:00 ARTZINIÉGA  
**XXIV. ANTZINAKO AZOKA**  
Herrian zehar

**09.16 Larumbata**  
10:00 AMURRIO  
**XXIX. ARTZAIN EGUNA**  
Herrian zehar

**INFO +**  
aiaraidea.eu



# kultura



JOTAKE ERROMERIAKO KIDEAK DIRA **UNAI RUIZ MATAMOROS** (Laudio, 2005), **OLATZ SARASOLA CALERO** (Larrabetzu, 2004), **MAIALEN MONASTERIO URIARTE** (Lezama, 2004), **JON ISUSI IBARROLA** (Laudio, 2005) ETA **EKAITZ ASCASIBAR CABREJAS** (Zamudio, 2005). ZAMUDION, AMURRION ETA ARRANKUDIAGA-ZOLLON JO DUTE DAGOENeko, ETA LAUDION ARITUKO DIRA IRAILAREN 23AN.



Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

## Herri eta eskualde ezberdinetako kideek osatzen duzue JotaKe erromeria. Nola batu zineten?

*Olatz Sarasola Calero:* Ekaitz, Maialen eta nik institutuan elkar ezagutu genuen, hirurak joan garelako Derioko Institutura. Taldea sortzea erabaki genuenean ez genuen batera-jotzailerik, eta ezagun eta lagunei galdetzen hasi ginen. Nire klasekide batek eman zidan Oierren telefonoa. Gero Oierrek esan zigun bazuela lagun bat, Unai, gitarra jotzen zuena eta taldean interesa zuena, eta Unai ere batu zen orduan.

## Zergatik?

*O.S.C.:* Erromerietan egon garenean ondo pasatu dugulako, abestiak mundu guztiak ezagutzen ditu eta ez zara taldearen jarraitzailea izan behar abestiak jakiteko. Pentsatu genuen modu horretan parranda ona muntatu ahal zela.

## Noiz eta nola hasi zineten?

*Ekaitz Ascasibar Cabrejas:* Ideia Bilboko Aste Nagusian sortu zen, eta gero aurrera eraman genuen. Uste dut urria-azaroan izan genuela gure lehengo entsegua. Proiektua, berez, 2023an garatu da gehienbat.

*Maialen Monasterio Uriarte:* Iaz izan genuen lehen kontakua, eta aurten garatu dugu proiektua.

## Nolakoa izan da proiektuaren garapena? Nola erabaki duzue zer eta nola jo?

*O.S.C.:* Erreparatu diogu gehien entzuten diren erro-

meriek jotzen dutenari, baina baita ere guri erromerietan entzutea gustatuko litzaigukeenari.

## Erromerientzat uda izaten da sasoi biziena. Nola igaro dituzue azken hilabeteak?

*E.A.C.:* Gure lehengo urtea izan denez, nahiko lasai egotea pentsatu dugu, ez ematea kontzertu asko. Lau izan ditugu bakarrik, baina gure ideia da datorren urteko udan gehiago izaten saiatzea.

## Zenbatero erreperitorioa daukazu?

*E.A.C.:* Bi ordu eta erdi ingurukoa. Lehen bagenuen trikitilari bat, baina, Errenteriakoa zenez nahiko zaila zen berarekin entseatzeko geratzea. Gauzak hala, trikitilari bila ari gara orain, eta izan arte badaude hainbat abesti ezin ditugunak jo.

## Non jo duzue orain arte?

*O.S.C.:* Jon genuen Zamudion, Arrankudiagan ere egon ginen...

*E.A.C.:* Abuztuan Amurrion jo genuen, eta Laudion ere joko dugu irailaren 23an.

## Zer aurreikuspen dituzue hurrengo hilabetei begira?

*Jon Isusi Ibarrola:* Entseatzeko hasiko gara, eta beste musika motaren bat gustatzen baizaigu ere sartzen hasiko gara...

*M.M.U.:* Nik uste dut mantenduko dugula orain arte egiten duguna, entseatzeko eta ondo jotzen; eta ikusten badugu badagoela abesti berriren bat gustatzen zaiguna ba saiatuko gara hori ere jotzen.

## Zer motatako erreperitorioa duzue orain?

*E.A.C.:* Nik uste dut badugula apur bat denetarik. Jotzen ditugu abesti oso ezagunak, eta gero beste batzuk ez direnak horrenbeste entzuten.

*O.S.C.:* Gure musika nahiko zabala da. Baditugu baladak, rocka, oi, ska... apur bat denetarik.

## Erromeriak urte luzez egon dira 1980-1990. hamar-kadetako musikan iltzatuak...

*O.S.C.:* Guk badugu Zetak taldearen abestiren bat, nahiko berria dena; eta gero baditugu baita Eskorbuto-renak... denetarik.

*M.M.U.:* Errromeria batean entzuten den horretatik abiatzen gara, hori delako jendeari gustatzen zaiona, edo hori dirudi behintzat. Baina gero gure buruari galdetzen diogu: zer gustatuko litzaiguke errromeria batean ikustea? Faltan botatzen ditugun abesti horiek sartzen saiatu gara.

*E.E.C.:* Gure Instagram kontuan ere noizbait jarri izan dugu jendearen proposamenak jasotzeko galdetegiren bat.

## Lan bizia da erromeriana: herri batetik bestera joan eta ordu txikitari jo. Gogotsu zaudete?

*M.M.U.:* Ez garenez oso errromeria ezaguna, momentuz ez zaizkigu hainbeste aukera sortu. Jendeak errromeria ezagunagoak deitzen ditu eta, ikusten badu ezin duela euren aurrekontua ordaindu, orduan jotzen errromeria txikiagoetara, gurera adibidez.

*Unai Ruiz Matamoros:* Kasuaren arabera erabakiko dugu. Egiten duguten proposamena gustatzen bazaigu, aurrera.



## Josu Ortizek Global Music Awards sarietan zilarrezko aipamena eskuratu du

Testua  
Jone Gartzia Gerra

Josu Ortiz Delgadok 2017an konposatu zuen berriki Global Music Awards-etan saritua izan den pieza. Bilboko Juan Crisostomo de Arriaga kontserbatorioan gradu profesionaleko bosgarren mailan zegoen, eta orkestra sinfonikorako eta korurako idatzi zuen *The Himalayas Suites*. Urte horretako maitzean estreinatu zuen obra kontserbatorioan bertan. Gerora, pieza bera bandarekin interpretatzeko aukera luzatu zioten eta orduan egokitu zuen banda sinfonikorako eta korurako. Laudio-ko Udal Bandarekin estreinatu zuen, 2018ko Gabonetako kontzertuan. Horren ostean, pieza bera Bilboko Udal Musika Bandak interpretatzea proposatu zioten, eta ezin izan zuen ezetz esan. "Ezin nion uko egin, inoiz nire obraren bat interpretatu duen talderik profe-

sionalena baita", azaldu dio musikagileak Aiaraldeari. Jose Rafael Pascual Vilaplanak zuendu zuen pieza. "Ospe handiko nazioarteko zuzendaria da, zuzendari izateaz gain, banda munduan konpositorea ere bada". Estreinaldia bideoz grabatu zuten eta, horren ostean otu zitzaion laudioarrari Music Global Awards sarietara aurkeztea. Azaldu duenaren arabera, ez dute sari ekonomikorik banatzen, "soilik errekonozimendua, zure musikari-balioa aitortzen dute". Mundu osoko eta mota guztietako musikariak aurkezten dira urtero antolatzen den sariketara.

Hiru sari maila daude: urrezko aipamena, zilarrezkoa eta brontzezkoa. Musikariak edozein musika estiloko piezak aurkez ditzakete: popa, reggaetona... Ortizek konposizio klasikoko kategorian aurkeztu zuen bere lana eta zilarrezko aipamena eskuratu du.

## 'Kafea + Liburuak', nagusientzako programa berria Amurrioko liburutegian

Testua  
Jone Gartzia Gerra

Amurrioko Udalak dinamika berri bat aurkeztu du: 'Kafea + Liburuak'. Horren bitartez, irakurtzera ohituta ez dauden 65 urtetik gorako pertsonak animatu nahi dituzte hilean ordu batez liburutegian elkartu eta, "irakurketaren onuraz" gozatzeaz gain, "ondo pasatzera".

Laura Medel hezitzaileak gidatuko ditu saioak. Ohiko irakurle ez diren adinekoei zuzenduta dagoenez, liburutegiko arduradunek azaldu dute poliki-poliki hasiko direla lehen saioetan. Hasteko, ipuin, olerki edo komiki bat irakurriko dute horren inguruan hausnartu eta esperientziak partekatuzko aitzakiarekin. Giro atsegina sortze aldera, kafea eta infusioak jarriko dituzte mahaiaren bueltan.

Oraingoan, hiru saio aurreikusituzte urtea amaitu bitartean. Lehena urriaren 10ean

izango da, asteartean. Hurrengo saioak azaroaren 14an eta abenduaren 12an izango dira, denak asteartez, 17:00etatik 18:00etara bitarte.

### Irakurketaren onurak

Amurrioko Udal liburutegiararen arabera, asko dira irakurketaren onurak. Alde batetik, garuna "gazte eta aktibo mantentzen du" eta "oroimena eta hitz-jarioa errazten ditu". Horrez gain, estresa murriztu eta osasun mentala hobetzeko lagungarria da eta, gainera, irakurketa partekatuetan sozializatzeko aukera ematen du.

Esperientzia berri honetan parte hartu nahi duen orok liburutegira deitzea besterik ez du, 945 39 37 20 telefono zenbakia- ren bidez. Momentuz aurrez aipatutako hiru saioak programatu dituzte eta, horien ostean, dinamikarekin jarraitu edo ez erabakiko dute, jasotzen duen erantzunaren arabera.

## "Hardcore Hits Cancer egitasmoak 100.000 euro batu ditu bitarteko urriko familientzat"

**ISRAEL FERNANDEZ LEON (Laudio) ETA JOAQUI PRIMYOY GUTIERREZ (Madril) IZANGO DIRA AURTENGO HARDCORE HITS CANCER KONTZERTUAREN ANTOLATZAILEAK ETA EGITASMOARI BURUZ MINTZATU DIRA.**



Israel eta Joaqui Laudion. Aiaraldea.eus

Testua  
Aitor Aspuru Saez

**Israel, aurten ere laguntza izango duzu Hardcore Hits Cancer elkartearen aldeko kontzertua egiteko?**

*Israel Fernandez Leon:* Bai, Joaqui lagunduko dit taldeekin eta sare sozialekin. Berak hartuko du ardura osoa. Agik lagundu zidan iaz, baina aurten beste proiektu bat dauka esku artean eta, ondorioz, Joaqui izango da ekimenaren aurpegia.

**Aurtengo kontzertuaren antolakuntza nolakoa izan da?**

*I.F.L.:* Gure filosofia oso erraza da: Saiatzen gara inguruko taldeak ekartzen bidaia gastuak ahalik eta gehien murrizteko eta horrela dirua elkartera bideratzeko.

Parte hartzea berretsi zigun azken taldea Ultimatum izan zen eta Memento Morirekin afinitate handia dugu. Lagunak dira eta Hardcore Hits Cancer ekimenaren gertukoak.

Horrez gain, Mikel Pute-Artekoa da soinu teknikaria eta berekin egin dugu. Berak beste talde batzuk ezagutzen ditu eta azkenean dena bikain ateratu da.

**Joaqui, orduan zein izango da zure lana?**

*Joaqui Primoy Gutierrez:* Apur bat denetarik egingo dut. Sare sozialak landu eta, kontzertua denean, taldeekin egon, eurak gustura eta eroso egoteko, taldeen aldaketak ondo egiteko, sarrerak kobratu eta han egon, taldeek afaltzen dutela ziurtatu... Azken finean, dena egiten dugu gure kabuz.

**Baina zu, berez, Madrilen bizi zara, ezta?**

*J.P.G.:* Bai, nik Hardcore Hits Cancer elkartearen parte hartzen dut duela urte pilo, hamar baino gehiago. Horrez gain, COVID garaian antzeko elkarteak sortu genituen jendea laguntzeko. Dirua eskuratzen genuen Madrillgo Auzo Elkartearen Federaziorako. Gehienbat, gai sozialean laguntzen aritu naiz. Nire anaiak metal talde bat dauka eta bere lagun kuadrilla erdi punk eta hardcoreak dira. Nik ez dut inoiz musika talde batean jo, bestela ez nuke denbora izango nire bizitzan (barreak), baina horrelako elkartasun kontuetan beti egon naiz sartuta, hardcorearen eta punkaren bitartez.

**Nola sortu zenuten Hardcore Hits Cancer?**

*J.P.G.:* Sortzaileak minbizia izan zuen eta musika oso lagungarria izan zitzaion tratamenduei aurre egiteko, kimioterapia barne. Gehien gogoko zuen musika punk eta hardcorea zen eta gaixorik zegoen bitartean pentsatu zuen nola erabili ahal zuen musika hori jendea laguntzeko. AFANOC elkarte topatu zuen. Elkarteak diru bitarteko urriak dituzten familiak laguntzen ditu. Zehazki, umeei tratamendua jasotzen dutenean, hori ordaintzen laguntzen dute, bidaiak eta egonaldiak Bartzelonako ospitalera joateko... Orduan lagunekin hasi zen ideia partekatzen eta ekin genion kamisetak egiteari Hardcore Hits Cancer leloarekin. Egitasmoa hazten joan zen eta lagunuen artean elkarte legeztatu genuen, behin estatutuak sortuta. Gero kontzertuak ere antolatzeari egin genion eta jadanik hamabi urte bete ditugu.

**Zure kalkuluen arabera, zenbateko diru ekarpena egin duzue elkartearen bidez?**

*J.P.G.:* Pandemiarekin gure gaitasunak behera egin zuen, kamiseten salmentarekin ateratzen baitugu diru gehiena kontzertuetan. Tarte batez hori ezinezkoa izan denez, nabaritu dugu. Hala ere, on-line ere saldu dugu, argitalpen mugatuak ere egin ditugu, eta zailtasunak zailtasun, jarraitu dugu ekarpenak egiten. Orain kontzertuak egiteko aukera dagoela, itzuli gara horretara eta guztira, esango nuke 100.000 euro baino gehiago bildu ditugula AFANOC elkartearentzat.

**Animatuko duzue jendea, Laudio-ko kontzertura joan dadin?**

*J.P.G.:* Bai, aukera duen orori gonbidapena egin nahi diot. Kontzertuaren arrazoia ona da, berez, oso zaila da zure familian ume batek minbizia izatea, baina bitartekorik ez baduzu, are okerragoa da. Horregatik, gurasoek haurrak ospitalean bakarrik utz ez ditzaten, ekarpena egiteko modua egongo da kontzertuan. Guk ez dugu ezer irabazten, diru guztia doa elkartera.



# kultura



“Musikariaren prozesua askotan oso bakartia da”

Espainiako Orkestra eta Abesbatza Nazionalen arituko da Ariadna Martinez sopranoa. **Ariadna Martinez**

Sopranoak urte hasieran jakin zuen datorren denboraldian Espainiako Orkestra eta Abesbatza Nazionalen arituko zela; baina, berriki denboraldiaren aurkezpena egin arte, isilpean gorde behar izan du informazioa. Audioarra Aiaraaldea komunikabidearekin aritu da kontzertuak bere ibilbidean izango duen garrantziaz eta prestakuntza prozesuaz.



Testua **Jone Gartzia Gerra**

Laudio eta Madril artean bizi den Ariadna Martinezek *Faureren Requiem*a interpretatu beharko du Enrique Sanchez baritonoarekin batera eta Edmundo Vidal zuzendariaren agindupean. Sopranoak azaldu du ez dela ohiko hildakoentzako meza, “argitsua” eta “esperantzagarria” baita.

Ahots-mailan esaldi luzeak abestu beharko ditu eta ahotsarekin “interpretazio handia” eman beharko die; izan ere, batzuetan samurra eta gozoa izan behar da eta bestetan dramatikoagoa, eta horregatik ahotsarekin “kolore ugari” bilatu beharko ditu. Hori izango da audioarraren erronka nagusia. “Opera batean pertsonaia bat egiten baduzu, jantziak eta abar ditu-

zu laguntzeko, baina, hemen zure ahotsa baino ez duzu eta ñabardurarik handienak bilatu behar dituzu”, zehaztu du. Bere zatia Pie Iesu bat da, zatorik lasaiena, otoitz moduko bat duena arimak bakean atseden har dezan.

Erronka bada ere, Martinez zorioneko sentitzen da, bai Orkestra eta Abesbatza Nazionalarekin aritzeko izango duen urrezko aukeragatik eta baita obra zehatz hau interpretatzeko abaguneagatik ere. Izan ere, audioarrak aitortu du betidanik abestu nahi izan duela *Faureren Requiem*a.

### Prozesu bakartia

Urtarrilean egin zituzten abeslariak hautatzeko audioak eta ordutik kontzertua izango den atera bitarte musikariak beren kabuz prestatu behar dituzte piezak. Ema-

naldia urtarrilaren 28an izango da, igandean, eta astelehen horretan bertan egingo dituzte lehen entseguak orkestra eta abesbatzarekin. “Gure ardura da egun horretara guztiz prestatuta iristea, edozein kontu konpondu ahalizateko. Hain landuta eraman behar dugu, ezen momentuan bertan eskatzen diguten edozein gauza aldatzeko gaitasuna izan behar baitugu”.

Momentuz, Martinez nahiko lasai dago, audiziorako lan handia egin behar izan baitzuen. Jakitun da hau orain arte eman duen kontzerturik garrantzitsuena izango dela, nazioarteko orkestra batean arituko baita eta horrek ikusgarritasun handia emango baitio. Hilabete batzuen buruan berriz hartuko ditu entseguak bere irakaslearen laguntzarekin, baina, bitartean, abeslari audioa-

**Musikariak ia urtebete eman beharko dute obra beren kabuz prestatzen, kontzertura ahalik eta prestatuen iristeko**

rrak baditu hainbat proiektu eskuartean.

### Beste lan batzuk

Esaterako, aurten Zaragozan opera bat emango du japonieraz, eta horrek berebiziko prestakuntza eskatuko dio. Datorren urtean *Turandot* opera egingo duela ere aurreratu du, non Liú pertsonaiaren papera abestuko duen.

Horrez gain, haurrei opera gerturatzeko proiektu bat ere badu. Pedagogo gisa material didaktikoa prestatzen du eta nahiz eta egitasmo horretan gutxiago abesten duen eta denbora asko hartzen dion, garrantzitsua iruditzen zaio horrelako kontuak egitea operak harrobia izan dezan. Bere helburua da haurrek ikustea opera atsegina dela eta ez dela elitearentzako edo dirudunentzako gauza bat.



## babestutako edukia

# HEZKUNTZA

## A TELIERRAK



### arte plastikoak

Marrazketa, buzingintza, kale-arte, serigrafia...

NOIZ? astelehenero  
ORDUTEGIA? 17:15-18:30



### gorputz adierazpena

Dantza, antzerkia, zirkoa...

NOIZ? asteartero  
ORDUTEGIA? 17:15-18:30



### hitzaren ateliera

Irratia, egunkaria, argazkigintza, ipuinak, bertsoa...

NOIZ? asteazkenero  
ORDUTEGIA? 17:15-18:30



### natur ateliera

Sukaldaritza, sendabelarrak, baratza...

NOIZ? ostegunero  
ORDUTEGIA? 17:15-18:30

### PREZIOA

BAZKIDEAK hilabetea 26€/haurra · EZ-BAZKIDEAK hilabetea 35€/haurra  
\*3x2: Bi atelietan apuntatu ezker hiru lagun ateliera doanik

### BALDINTZAK

Plazak mugatuak dira · Taldea sortzeko 8 lagun behar dira  
Saioak urritik maiatzera izango dira (ekainera luzatzeko aukerarekin). Apuntatzen dena urte guztian parte hartzeko ardura hartzen du  
Hilabetero berdina ordainduko da, hilabete horretako saio kopuruak kontuan hartu gabe. Guztira 30 saio egingo direlarik.  
Baja emateko hilabete bateko aurrerapenarekin abisatu beharko da.

### IZENA EMATEKO

[www.faktoria.eus](http://www.faktoria.eus) webgunean edo 722 22 75 32 telefonora deituz.





# kultura

Arte Arnasa Laguntza jasoko duten sortzaileen artean audioarrak ere badaude eta diziplina anitzak lantzen dituzte hautatutako proiektuek. Abenduaren 3an Faktorian antolatuko den Arte Eman festan, sortutako proiektu guztiak jendaurrean aurkeztuko dituzte

## 1.000 euroko lau sormen beka esleitu ditu Aiaraldea Kultur Faktoriak



Ane Azkonak sortutako collage bat. **Ane Azkona**



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Aiaraldea Kultur Faktoriak lau sormen beka esleitu ditu eta, horiekin, proiektu bakoitzari 1.000 euroko ekarpena egingo dio. Babesa jasoko duten sortzaileak Maider Ramirez Martín eta Oihane Ibarra Salina audioarrak; Maite Aizpurua Olaizola, Intza Alkain Ibarra Salina audioarrak; Maite Aizpurua Olaizola, Intza Alkain Ibarra Salina audioarrak; Maite Aizpurua Olaizola, Intza Alkain Ibarra Salina audioarrak; Maite Aizpurua Olaizola, Intza Alkain Ibarra Salina audioarrak.

### Proiektuak

Maider Ramirez Martín eta

Oihane Ibarra Salina gazteek *Kirrikiri* ipuin bilduma interaktiboa egitea izango dute helburu, euskal gizarteko aniztasuna islatzeko, euren azaldu duten moduan.

Maite Aizpurua Olaizola, Intza Alkain Ibarra Salina eta Mejillon Tigre Kolektiboak antzezlanak sortuko dute. Hain zuzen, *Forever - Lagunekin bakarrik tatuatu daiteke* izango da izenburua.

Ane Azkona Galarragak bideo kontaketa esperimentalararen bidea hartuko du eta *Cuchara de plata o llaves* izango da horren izena.

Harkaitz Gorostiaga Estiballesek *Eskutik*, dantza ur-



**Harkaitz Gorostiaga**

Dantza urbanoa

*“Dantza, musika eta itzalak baliatuz kritika soziala egitea da nire helburua”*

banoaren bitartez zeharkako diziplinen koreografia, asmatuko du. Musika, dantza, argia eta antzerkia baliatuko ditu kritika soziala sustatzeko.

### “Hautaketa zaila”

Aiaraldea Kultur Faktoriak 17 proposamen jaso ditu eta arduradunek aitortu dute soilik lau hautatzea zaila izan dela: “Guztira, hamazazpi proiektu aurkeztu dizkigute, bakarkakoak eta taldekoak, eta esan beharra daukagu oso zaila izan dela lau bakarrik aukeratzea, oso proposamen interesgarriak, deigarriak eta gauzatzen ikusteko irrika piztu digutenak izan direlako”.

Lagunduko diren egitasmoak udazkenean erakutsiko dituzte publikoki, amaitutako emaitza edo garatutako prozesuaren zati bat, bederen, Faktorian bertan antolatuko den sortzaileen arteko topaketa irekian edota udazkenearako antolatzen ari diren Arte Hartze Zikloaren barruan.

### Elkarlan eredu berriak

Aiaraldea Kultur Faktoriak nahiko lituzkeen sortzaile guztiei babes ekonomikoa emateko gaitasunik ez duenik, bestelako elkarlan bideen bila ari da. “bisibilizazioan laguntzeko formulak ere eskaini nahi dizkiegu aurkeztu diren proiektuei. Adibidez, abenduaren 3an, Arte Eman Festa ekimena antolatzen ari gara, Kultur Faktoriaren sormen egonaldietan eta beketan garatu(ko) diren proiektuak erakusteko eta sortzaileek beraien bizipenak partekatzeko euren artean eta publikoaren aurrean”, adierazi dute.



**Ane Azkona**

Bideo kontaketa esperimentala

*“Nire lana finean, ‘inkesta oniriko’ bat da, desalojo agindua duen etxe bateko bizilagunei egindakoa”*



**Maider Ramirez Ohiane Ibarra**

Ipuin bilduma interaktiboa

*“Haurrei euskal gizartearen aniztasuna erakustea eta haientzako erreferente errealek sortzea da proiektuaren asmoa”*



## Esti Urresola, Victor Erice eta Juan Antonio Bayonaren artean aukeratuko dute nork ordezkatu duen Espainiako Estatua Oscar Sarietan



Esti Urresola Bilbon, bere filmaren aurre estreinaldian. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
Aitor Aspuru Saez

Irailaren 20an egingo dute publiko hiruretako zeinek lortuko duen Oscar Sariaren lehiaketan egotea. Horretarako kanpaina egitea ezinbestekoa izango du Urresolak hurrengo egunetan. Dena den, Aiaraldeko zuzendariak aurreikuspenak bete ditu dagoeneko.

Zinemagile audioarrak sekulako mugarria jarri du eskalaz zinemaren 20.000 *especies de abejas* bere lehen film luzearekin. Izan ere, film independenteak 150.000 ikusle baino gehiago erakarri ditu zinemara eta nazioarteko hainbat jaialdiren aitortza jaso du. Horretarako gai arantzatsua landu du; identitatearen eta adin anitzeko belaunaldien krisialdia adingabe transexual baten bidez.

Urresolaren lanak zinemaren

bi mitorekin nor baino nor lehiaztera eraman du. Lehenik eta behin, Victor Erice Karrantzako zinemagilearen film berria izango du aurrez aurre. Zuzendariak ez du ezer grabatu 30 urtez eta *Cerrar los ojos* izan da bere itzulera.

Ericen txalo zaparrada jaso zuen Canneseko jaialdian eta Donostiako Zinemaldiaren aitortza ere jasoko du irailan, bereak baitira *El espíritu de la colmena* edota *El sol del membrillo* pelikula entzutetsuak.

Ericeren zinema intimistaren beste puntan dago Juan Antonio Bayonarena, ekoizpen handiak eta akzioz beterikoak egin da ibilbide izugarria eta meteorikoa bete baitu. *Lo imposible*, *Jurassic World* edota *El orfanato* filmeez ez ezik, *Lord of the Rings: The Rings of Power* telesaiorearen egileetako bat ere bada.

## Royal Albert Hall Londreseko eraikin enblematikoan joko du Antonio Oyarzabalek hurrengo astean

Testua  
Aitor Aspuru Saez

Antonio Oyarzabal musikari audioarrak Londreseko Royal Albert Hall eraikin ospetsuan joko du irailaren 19an 20:00etan, Elgar Room aretoan, hain zuzen.

Sortzaileak Steinway Piano Series ekimenaren barruan egingo du, Donne, Women in Music fundazioaren eskutik. Antolakunde horrek genero berdintasuna sustatzen du musikaren esparruan eta horregatik gonbidatu du Antonio Oyarzabal. Izan

**La muse oubliée eta El fin del silencio diskoen abestiak baliatuko ditu musikari audioarrak**

ere, pianistak XX. mendeko Europako eta Ameriketako emakume konpositoreen lanak berreskuratu ditu *La muse oubliée* eta *El fin del silencio* diskoetan.

Pieza horiei esker aurten Los Angelesen, Floridan, Bilbon, Valentzian, Irlandan edota Salzburgen eskaini ditu emanaldiak.

Horrez gain, Oyarzabal lanean ari da *La muse oubliée* diskoaren bigarren partea laster argitaratzeko. Aurrekoan bezala, emakumezkoen piezak jorratuko ditu.

## #UdariKlik UDA KO ARGAZKI LEHIAKETA 2023



Bidali zure argazkia irailaren 16a baino lehen eta bozkatu zure argazkirik gogokoena!

[www.labur.eus/udariklik2023](http://www.labur.eus/udariklik2023)



2023-24 MATRIKULAZIO EPEA IRAILETIK AURRERA ZABALIK

Ukelelea Bateria Pianoa Gitarra Baxua Kantu klasea Trikitrixa Panderoa

Ikaskin 5, Laudio Industrialdea (Laudio) Gardeako tren geltoki alboan 699 88 35 63

AIARALDEA

KOMUNIKABIDE  
FAKTORIA

El Lio

TREBIÑU  
sagardotegia



# kirola



**AITOR LLANO (AMURRIO)** ETORKIZUNA KLUBEKO KIROL ZUZENDARIA DA ETA ELKARTEAN EGITEN ARI DIREN ALDAKETEN ETA FILOSOFIAREN BERRI EMAN DU.



Testua eta argazkia  
**Aitor Aspuru Saez**

## **Zeintzuk dira zure ardurak Etorkizuna klubean?**

Iaz hartu nuen kirol koordinatzailearen ardura. Kirol arlo guztietan guk ezarritako irizpideak betetzen direla bermatu behar dut, baita dena modu egokian funtzionatzen duela ere.

Entrenatzaileekin, gurasoekin eta federazioarekin komunikatu behar naiz eta kirol behar guztiak asetu behar ditut.

## **Aurten zenbat neska-mutil dituzue klubean?**

Iaztik hona inskripzioek gora egin dute eta igoera nabarmena sumatu dugu. Aurten, gutxi gorabehera, 200 neska-mutilek baino gehiagok eman dute izena eta emakumezkoen kirolari garrantzi berezia eman nahi diogu. Zentzu horretan, erantzun positiboa izan dugu nesken aldetik herrian, eta kopurua igo da.

## **Zer sustatzen du Etorkizunak?**

Amurrioko eta inguruko neska-mutilei kirola egiteko aukera ematen die eta argi dugu zeintzuk diren gure balioak; kiroltasunez jokatzeko, taldekideak eta futbolaren inguruan mugitzen diren lagun guztiak errespetatzea (entrenatzaileak, arerioak...). Kirola sustatzea, errespetua eta taldekidetasuna dira ardatza.

## **Zenbat denbora daramazu Etorkizunan?**

Duela zortzi urte hasi nintzen entrenatzen Amurrian, baina nire lehenengo urteak Kaskagorri eman nituen. Etorkizunan sartu nintzen duela bost urte entrenatzaile gisa eta orain tartekatzen ditut ardura horiek eta kirol

zuzendariarenak. Berez, hau da nire bigarren urtea kirol zuzendari legez.

## **Urte hauetan zein aldaketa gertatu dira klubean?**

Sartu nintzenetik sumatu dugu neska-mutileen entrena-tzaile gazteak falta zirela eta hori konpontzen saiatu gara. Herriko gazteak gonbidatu ditugu klubean sartzera horretarako. Berez, belaunaldi aldaketa beharrezkoa da klubaren barruan eta horretan gaude. Hori izan da aldaketa nagusienetako bat.

Bestalde, aurten klubak metodologia propioa ezarri du. Ez gara adituak, baina gure trebakuntzarekin garatu dugu eta adituekin partekatu dugu. Horren helburua da talde txikienetatik nagusienera guztiok lan egitea bide berean.

Neska-mutilentzako eduki tekniko eta taktikoak ezarri ditugu eta kirol ohiturak. Azpimarratu nahi dugu gure abiapuntua dela gu ez garela entrenatzaileak, hezitzaileak baizik. Hemen neska-mutilekin ordu asko igarotzen ditugu eta eurentzat ispilua izan behar gara.

## **Zein izan da aldaketa nagusia metodologian?**

Orain arte ez da landu eta guk finkatu ditugu guretzat garrantzitsuak diren hainbat eduki, kontuan hartuta jokalarien adina. Adin bakoitzean zein eduki landu behar duen zehaztu ditugu, klubaren barruan argi izateko. Horretarako pasa den astean trebakuntza saioa egin genuen, azaltzeko zer nahi dugun.

Entrenatzea lan irekia da. Izan ere, entrenatzaile izateko grinaren barruan dago norberak transmititu nahi dituen edukiak, baina baztertu gabe guk ezarritako norabidea.

Kirol taldea sortu dugu aurten konfiantzazko hiru kide-  
ren artean eta badakigu zein den Aiaraldean ditugun

bitartekoak eta testuingurua, baina jokalaria erdian jartzen saiatzen gara. Hori guztia trebakuntza eskaintzen entrenatzaileei eta emaitzak futbol zelaian islatuta.

## **Ezarritako irizpide tekniko eta taktiko horiekin joko eredu jakin baten alde egiten duzue?**

Ez. Gure jokoa joko garbia da. Gero bakoitzak dauka bere jokatzeko modua, baina jokalaria guztiek kontzeptu batzuk argi izatea nahi dugu. Gero ikusiko dugu jokalaria bakoitzak zein gaitasun duen, batzuekin irizpide horiekin urrats bat gehiago eman ahalko dugu, edo ez.

## **Zein da zuen norabide berriaren xedea?**

Amurrioren indarra jartzea eta erakustea seriotasunez lan egiten dugula, eta noski, ahalik eta tresna gehien eskaintzea jokalariei ez bakarrik futboleant, baita bizitzan ere, zenbait balio landuta. Aipatu nahi dut Campusak antolatzen hasi ginela iaz eta aurten ere egin nahi dugula.

## **Aurten ere 25 urte beteko ditu klubak.**

Bai. Ilusioa sortzen digun denboraldia da. Alde batetik, ikusi nahi dugu metodologiaren eragina zein den. Bestetik, klubaren 25. urteurrena da. 1998an sortu zuten eta aprobetxatu nahi genuen biak uztartzeko. Ekitaldiak eta sorpresa batzuk antolatu nahi ditugu, garrantzitsua iruditzen baitzaigu klubak urte luzez eman duen aukera kirola emateko herriko neska-mutilei.

## **Zergatik sortu zuten Etorkizuna?**

Ni ez nintzen jaio 1998an (barreak), baina Amurrio Club taldeak ez zuen harrobia lantzeko klubik eta erabaki zuten Etorkizuna eta Kaskagorri sortzea.



## FUTBOLA

## Altzarrate Kirol Elkartea Luis Rubialesen aurkako borrokan sartu da burubelarri



Altzarrateko ordezkariak Madrilgo Senatuan. Altzarrate Kirol Elkartea

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Luis Rubiales Espainiako Futbol Federazioaren presidentea Jennifer Hermoso jokalaritari baimenik gabe emandako musuak kirola astindu du mundu osoan eta Aiaraldea ez da salbuespena izan.

Hain zuzen, Altzarrate Kirol Elkartea izan en ahotsa altxatu zuen lehenengo klubetako bat. Altzarratek Munduko Kopako finaletik bost egunera exijitu zion Federazioari berari Rubialesen jarduerari zigortzea, Munduko Kopako ospakizunaren testuingurua egindakoak futbol erakundearen protokoloa urratzen duelako.

Zehazki, Altzarratek salatu zuen jarrera hori Sexu in-

darkeriaren kontrako protokoloaren 4. puntuaren kontra. Hori ez ezik, hurrengo egunean klubak idazkia bidali zion Euskal Federazioari antolakunde horrek plazartutako adierazpenekin ere bat egiteko eta, gainera, zoriondu zituen dimisioa aurkeztu zituzten lurralde federazioko presidentek, euskal ordezkaria barne.

Munduko Kopako finaleko gertakarietatik hiru astera eman du azkenean Espainiako Futbol Federazioko presidentek kargutik dimisioa Luis Rubialesek. Auzitegi nazionalak, bestalde, onartu egin du fiskaltzak irgana astean Rubialesen aurka jarritako ke-reila, Hermosori baimenik gabe musu emateagatik.

## INGUDE ALTXATZEA

## Abuztu borobila izan da honakoa Naroa Yarritu artziniagarrarentzat



Naroa Yarritu Arabako txapelarekin. Aiaraldea.eus

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Naroa Yarritu artziniagarrrak orain arteko marka personal onena lortu zuen abuztuaren 6an Berangon lehiatutako Euskal Herriko Ingude Txapelketan. Horri esker, hirugarren postua eskuratu zuen eta altxaketa bakarragatik gainditu zuen bigarren sailkatuak. Hain zuzen, Yarrituk 88 aldiz altxatu zuen ingudea minutu eta erdian eta bigarrenak 89 alditan. Irabazleak ia 100 aldiz egin zuen.

Artziniagarra iazko marka hobetu du, 82 altxaketara heldu baitzen. Hirugarren postuak poztasuna sortu dion arren, Yarrituk adierazi dio Aiaraldea Komunikabideari parte hartzaileen artean gazteena izan

zela eta hobetzeko tarte duela oraindik: "Hurrengo urtean 90 altxaketa lortzea nahi dut".

### Arabako Txapeldun

Abuztuko lehenengo astea, aste borobila izan zen Yarriturantz. Euskal Herriko Ingude Txapelketan hirugarren postua lortu ostean, abenduaren 8an Arabako Txapeldun izendatu zuten Gasteizen.

Yarritu helburu zehatzik gabe joan bazen ere, gailendu zen eta iazko emaitzak hobetu zituen, orduko hartan bigarren izan baitzen.

Horretarako bi egun lehenago Berangon jaritako bere marka onena errepikatu zuen, hau da, 88 altxaketa minutu eta erdian. Emaitza nahiko estua izan zen,

bigarren eta hirugarren sailkatuek 85 aldiz altxatu baitzuten ingudea denbora tarte berean.

### Hiru urtez ingudea altxatzen

Duela laupabost urte hasi zen Naroa Yarritu Bizindar herri kirol taldean parte hartzen eta duela hiru proposatu zituen ingudea hartzea: "Modu mixtoan aritzen gara, diziplina bakoitzean neska eta mutil bana lehiatzen dira. Duela hiru urte ingudean aritzen zenaren tokia hartu nuen eta aurrera jarraitu dut".

Yarrituk mezua zabaldu nahi izan du aiaraldearen artean, anima daitezen Bizindar taldean parte hartzen: "Ea beste herrietako jendea ere gurekin entrenatzera etortzen den".

KOMUNIKAZIO

FAKTORIA

## INTERPRETAZIO ZERBITZUAK

Zalantzan zaude zure ekitaldia euskaraz ala gaztelaniaz antolatu? Egizu euskaraz, eta guk aldibereko itzulpena egingo dugu aztelaniaz!

Tokikoak, gertukoak eta eskarmentu handikoak.

Elkartentzat eskaintza bereziak!



[www.komunika.eus](http://www.komunika.eus)

[jonegarcia@aiaraldea.eus](mailto:jonegarcia@aiaraldea.eus) · 722 22 75 42 · FAKTORIAN, Errotari kalea, 4-8 LAUDIO

[@komunika.eus](https://www.instagram.com/komunika.eus)



# kirola



**“Espainiako Txapelket  
beste maila batean dag  
eta asko ikasi dugu”**

**JORGE BENGOA** (Laudio, 1979) eta **BILALL BEN YECHOU** (Areta, 2003)  
ESPAINIAKO KICK BOXING TXAPELKETAN ARITU ZIREN MAIATZEAN. EMAITZA POSITIBOAK  
LORTU EZ EZIK, IRAKASPEN GARRANTZITSUAK ERE EKARRI ZITUZTEN.



Testua eta argazkia  
**Aitor Aspuru Saez**

**Zein txapelketan hartu zenuten parte maiatzean?**  
*Bilall Ben Yechou:* Espainiako K-1 eta Kick Boxing Txapelketetan. Guadalajaran izan zen.

**Emaitza positiboak eskuratu zenituzten, ezta?**  
*B.B.Y:* K-1 diziplinako kategoria altuenean borrokatu nintzen, 105 kilo pisatzen baintuen. Bi borrokalari baino ez ginen maila horretan agertu eta zuzenean finalean aritu ginen.

Berak ni baino eskarmentu handiagoa zuen eta borrokalari profesionala da. Ni kirolari amateurra

naiz oraindik -lau borroka ofizial dauzkat eta laurak amateurrek eta ringean ikusi zen horren isla.

Borroka orekatua izan zen eta azken round-ean v arazo bat dudalako sudurrean eta odolatan ari nintzelako. Odolagatik gelditu zuten borroka eta garai-pena berarentzat izan zen.

Ni duela sei urte inguru hasi nintzen Asier Arzarekin entrenatzen. Askok entrenatu dut eta orain Gorobelen entrenatzailea naiz Patriarekin eta profesionalizatzen saiatzen ari naiz.

Txapelketei begira, nire helburua da pisua jaitea, 90 kilora. Orduan ikusiko dut lehiaketaren batean parte hartzen dudana edo borrokaren bat adosten dugun.

*Jorge Bengoa:* Ni bi modalitatetan borrokatu nintzen: Kick Light eta Light Contact. Ostiralean hasi nintzen eta Master 40 kategorian aritu nintzen. Light Contacten finalerdietara heldu nintzen, baina Murtziako kirolari batekin galdu nuen.

Larunbatean lehen borroka irabazi nuen Kick Lighten, baina final laurdenetan egokitu zitzaidan Gasteizko Oscar Nevadorekin neurtzea eta bera Munduko Kick Boxing Txapelduna izan da, Europakoa, Espainiakoa... Kondaira hutsa da eta galdu nuen, baina oso esperientzia ona izan zen.

Gainera, Nevada oso jatorra da eta pozik bukatu nuen. Borroka polita izan zen. Dena eman nuen, baina ezinezkoa zen.



## kirola

ta  
go

**“Espainiako Txapelketan ikusi dugu zein garrantzitsua den teknika izatea”**

**Bizipen oso ona izan da?**

**B.B.Y:** Bai, lehenengo aldia da Espainiako Txapelketara joaten garela eta Euskal Selektzioak hautatu gintuen.

Berez, aurten ez da borrokarik egon hautatuak nortzuk izango ziren erabakitzeke; epaile talde bat bildu da eta eurek erabaki dute nor joan behar zen. Jorgek oso borroka onak egin ditu eta nik baten bat ere irabazi dut. Nik bi borroka izan ditut, Balmasedan eta Oviedon.

Bat oso garrantzitsua izan zen. Nire aurkaria hamar aldiz Espainiako Txapelduna izan da eta nik ez nekien. Oviedora joan nintzen eta aurre egin nion, 120 kilo pisatzen baititu.

Oso ondo egon zen borroka, baina azken asaltoan sudurra odoletan izan nuen berriro eta eten zuten norgehiagoka.

Aintzat hartu beharra dago Jorge eta biok borrokalari amateurrek garela eta Espainiako Txapelketan maila bestelakoa dela.

**“Oscar Nevado Munduko Kick Boxing txapeldunaren aurka galdu nuen”**

**“Oviedon Espainiako txapeldunaren kontra borrokatu nintzen”**

**J.B:** Onenak daude han. Gehienak profesionalak dira. Marrazo guztiak elkartzen dira.

**B.B.Y:** Guretzat ikusgarria zen eta esperientzia oso ona. Asko ikasi dugu. Espero dugu gure azken parte hartzea ez izatea eta itzultzea guztia emateko.

**Jorge, zuk zenbat borroka izan dituzu?**

**J.B:** Amateur bezala zazpi borroka ringean eta tatamian, aldiz, zortzi edo bederatz. Zortzi urte bete ditut kirol honetan eta pozik nago, nahiz eta berandu hasi nintzen.

**B.B.Y:** Hala ere, sasoi fisiko paregabea duzu, inork ez dauka zure kategorian.

**Zer ikasi zenuten Espainiako Txapelketan?**

**B.B.Y:** Nik ikasi nuen irabazteko zenbait trikimailu daudela. Joan nintzen pentsatzen guztia eman behar zela, eta ez da beti horrela.

Oso teknikoak dira eta low-kick asko bilatzen dituzte. Ni "striker" naiz, KO egitera noa eskuekin, baina han low-kick egitea ezinbestekoa da. Pertsonalki ere esperientzia ikaragarria da, Jorge anaia baita niretzat.

**J.B:** Niretzat ere garrantzitsua izan da. Aldaketa handia suposatu du. Nire borrokatzeke era oinarrituta dago etengabe kolpeak ematean. Aurrera egiten dut beti kardio ona dudalako, baina Espainiako Txapelketan ikusi dut teknika oso inportantea dela.

Borrokalari guztien maila oso altua da teknikoki. Buelatzeko hori hobetu behar dut; pentsatzea, tatakia kontrolatzea, teknika, mugimenduak... Beste mundu bat da.



# kirola

KICK BOXING

## Ibai Ruiz borroka profesionalera itzuli da Thailandian



Ibai Ruiz Thaiandiako ring batean bere lagunekin. I.R.

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Antolatzaile zein epaileekin zenbait esperientzia ezatsegin izan ostean, Ibai Ruizek aurtengo martxoan erabaki zuen bere ibilbide profesionala amaitutzat jotzea. Borrokalaria ez zuen motibaziorik aurrera egiteko eta alde batera egitea izan zen bere hautua.

Dena den, udan Thailandian egin du egonaldia, bere senide bat hangoa baita, eta zenbait gimnasiotan aritu zen entrenatzen eta ikasten.

Horri esker, hiru aldiz ringera igotzeko proposamenak jaso zituen. "Bi estadiotan lehiatu naiz eta emaitzak onak izan dira".

Berez, Ruizen asmoa zen azkenengo aldiz Thailandian lehiatzea eta agurra behin betikoa izatea: "Edozein borrokalaria daki zein garrantzitsua den Thaiandiako jendearentzat kultura hau eta polita iruditzen zitzaidan han igotzea azkenengo aldiz ringera".

Baina lehen borrokaren ostean beste bi gehiagotan parte hartzeko parada suertatu zitzaion eta ilusioz itzuli da lehiara amurriarra.

Berez, Ruizek ez du parte hartu bere ohiko diziplinan, hots, Kick Boxingean, baizik eta Muay Thain. "Kirol honetan ukondoeekin jo daiteke eta arerioa heldu. Puntuatze sistema ere ez nuen menperatzen, baina emaitzak onak izan dira".

Emaitza horien ondorioz, pro-

posamen gehiago heldu zitzaizkion. "Lumpini estadio mitikoan borrokatzeko esan zidaten, baina irailean zenez hitzordua, ezin izan nuen onartu", argitu du kirolariak.

## Amurriarrak martxoan erabaki zuen bere ibilbide profesionala etetea, baina udan hiru aldiz borrokatzeko aukera izan zuen Thailandian

Orain, ilusioz

Esperientzia horiek balioan jarrita, Ruiz Euskal Herriko ringetara igotzeko gogoz dago, baldin eta eskaintza interesgarriren bat egiten badiote.

"Denbora tarte oso motzean motibazio handia jaso dut. Ni duela hamar urte borrokatu nintzen Thailandian eta geroztik ez dut ezer egin. Bi hilabete inor ez izatetik proposamenak jasotzera igaro naiz. Izan ere, estadiotan ikuskatzaileak daude eta horrela heldu zitzaidan iraileko eskaintza".

TXIRRINDULARITZA

## Iker Colmenero da Arabako Itzuliaren liderra, bere taldeak menperatu duen uda honetan



Aiarako txirrindulariak Artziniegako lasterketa amaieran. Aiara Txirrindulari Elkarteak

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Arabako Itzulia modu bikainean hasi du Aiara Txirrindulari Elkarteak eta Iker Colmenero da sailkapenaren burua. Izan ere, kirolariak Arroiabean egindako lasterketa irabazi zuen hainbat kilometro ihesaldian eman eta gero. Artziniegan ere ez zuen kale egin eta esprintean erabakiz eta etapen bigarren zeharkatu zuen helmuga.

Oraindik beste bi etapa falta dira txapelketa amaitzeko (Delikan eta Laudion larunbatean eta igandean, hurrenez hurren), baina, momentuz, emaitzak ez dira ezustekoa izan. Hain zuzen, denboraldi osoan nagusitasun ia iraingarria erakutsi du Aiara Txirrindulari Elkarteak eta uda horren isla izan da.

Esaterako, ekainean Aguraingo San Juan Sarian Ekhi Uriarte eta Iker Colmenero lehen eta bigarrenak izan ziren -harri orri arrera jokatu erabaki zuten heldu baino apur bat lehenago- eta Ion Egia laugarren. Horrez gain, uztailaren amaieran Iker Colmenero garaile izan zen Santa Ana de Puente Arca Sarian, eta Ion Egia Berangon. Gopegin, Colmenero izan zen irabazle eta Egia hirugarren.

Abuztu hasieran Ekhi Uriartek hirugarren postuan zapaldu zuen podiuma Tafallan eta abuztuaren 13an Opakuako igoeran sailkapena errepikatu zuen Uriartek, Danel Gorostiaga hamargarren zen bitartean eta Ugaitz Villegas, al-

## Arabako Itzulia hasi da asteburuan eta lehenengo bi etapetan Iker Colmenero laudioarra podiumean kokatu da bietan

diz, hamabosgarren. Lau egun beranduago, Los Arcos Hiria sarian eman zuten izena Aiara taldeko kirolariak eta Ion Egia hirugarren zeharkatu zuen helmuga. Abuztuaren 27an Gordexolan egindako lasterketan parte hartu zuten Aiara taldeko txirrindulariak eta Iker Colmeneroren zat izan zen garaipena. Gainera, Ion Egia laugarren sailkatu zen.

Bi egun geroago, 29an, Lakuntzako III. Sari Nagusiaren txanda heldu zen eta Ekhi Uriarte berriro sartu zen lehenengo artean, bigarren postua eskuratuta. Iker Colmenero, aldiz, laugarrena izan zen sailkapen orokorrean.

Hodei Muñoz

Hodei Muñoz txirrindulari aiarrak ere mugarrigarri du udan, podiumean amaitu baitzuen Junior mailako Espainiako Kopa; hirugarren sailkatu da denboraldiko lasterketa guztiak lehen kirolarien artean bukatu eta gero.

Txapelketako azken etapa Peñafilen (Gaztela eta Leon) luiaiondoarrak aukera guztiak zituen Kopa irabazteko. Hain zuzen, bigarrena zen sailkapen orokorrean eta lehena izateko dena eman zuen.

Ordea, amaierako une erabakigarriaren azken aldapan- eta ibilbide gogorra egin ostean, Muñozek kalanbreak sentitu zituen hantetan. Gauzak horrela, 16. heldu zen helmugara. Minduta amaitu bazuen ere, Muñozek sentsazio onak izan ditu bost probetan.



# herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Irailaren 27an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



## Imanol

Zorionak Aitite! Muxu handi bat zure familiaren partez!

Zure familia



## Gartzio eta Mikal

Emoiok egurre! Gora ezkonberriak!

Victor Pelayo Cueto



BIDALI  
ZURE  
ZORION  
AGURRA!

## Denborapasak

ERRAZA

	4		8			6		
	8			9	7			3
2			3		4		9	
7		8		4	9	5		
6		4		3		9		
9				8	5		3	4
		1		7			4	8
		7						
4	6							9

ZAILA

	2				4		8	
3	4							
			7	9				
		2					6	
4	3		8		5			7
				3	9			8
9		3	2	7	6		4	
2	6						7	
	8		3					

**DENBORAPASEN SOLUZIOAK** Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

## Zozketa




## Iñigo Martínez Sagastizabalen liburuaren ale bat zozkatuko du Aiaraldea Komunikabideak

Iñigo Martínez Sagastizabal audioarraren *Una quimera de vida* liburuaren ale baten zozketa Parte hartzeko sartu [www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus) atarian **Zozketaren data:** Irailak 22, 12:00etan.



# KOKORIKO

## IRAKURKETA GUNEA



### OTSOMALTZUR

**Idazlea:** Marisa Nuñez Alvarez

**Argitaletxea:** Txalaparta

Otso Maltzur maltzurra da oso! Arroza jateaz aspertuta dago eta haragia jan nahi du. Animaliak jan egin nahi ditu lortuko ote du? Otsoak sortzen dituen beldurrak lantzeko ipuin interesgarria da, otsoarekin eta barneko beldurrekin konektatzeko aukera ematen duena.



### JARA

**Idazlea:** Jasone Osoro

**Argitaletxea:** Alfaguara Zubia

**Adina:** 12 urtetatik gora

Lau liburutan Jasonek Jararen bizitza kontatzen digu. Jara nerabe bat da, lehenengo liburuan hilekoa jaisten zaio eta hortik aurrera nerabe baten bizipenak kontatzen ditu, familiarekin harremanak, lagunekin harremanak, gustuko pertsonak...

## JOLAS GUNEA

### LAUDIOKO PARKEA

**LEKUA:** Laudio (Araba)

Laudioko parkeak beti eman ditu aukera ezin hobeak familian arratsalde pasa bat egiteko. Zuhaitz berezi eta ugariak ditu, lorategi politak, iturriak ditu, bolo mota ezberdinetara jolasteko bolatokiak, skate parkea...

Udatik haur jolas-gune berria ere eraikia dago. Jolas gune interesgarri bat da, natur elementuak dituen eta elementu naturalekin egina dagoena. Sokak, harea, egurra dira jolas gunean nagusi.

Zouia harez egina dago, horrek jolas ugari eskaintzen dituelarik. Jolaserako hainbat elementu dituzte, ibilbideak, zabuak, salto egiteko elementuak. Tirolina ere badu.

Toki zoragarria da familiarekin gozatzeko



**KOKORIKO**  
HEZKUNTZA FAKTORIA  
**Hasiera**



Uda garaiak bukatu dira, irailean berriz bueltan gaudela hazieraren hasieran. Edo berriz hastera askorentzako. Eskolak, eskolaz kanpokoak, unibertsitateak..., hezkuntza eremuak orohar berriz daude martxan ikasturte berri bat hasteko prest.

Haurrei ere udan lausoagoak izan diren erritmo eta ordutegiak zorrotz bihurtzen zaizkie irailean. Zorrotzegi ez ote, esnatu - gosaldur - eskola - jantoki - eskola - eskolaz kanpoko - etxerako lanak - afaldu - lo-erritmo gogor eta zorrotza daramate haurrek.

Erritmo bizi horretan non uzten zaio haurrari jolasteko tartea, familiarekin denbora pasatzeko tartea, lagunekin egoteko tartea...

Haurrak belakiak direla esan eta guk sinetsi dugu, eta belakia bustitzen eta bustitzen ematen dugu eguna, haurrek ez dezaten denborarik galdu. Ingelera ikasi behar dute, musika ere ezin hobea omen da, dantza erritmoa hartzeko, kirola ere ezinebestekoa da, errefortsu klase batzuk...

Erritmo zoro hau lau urtetatik aurrera eramaten dute. Kalkulu azkar bat eginda egunean 9 ordu ematen dituzte haurrek etxetik kanpo gauza produktiboak egiten (eskolan eta eskolaz kanpokoetan).

Ikasturtea hasi da, eta haurra hazi egingo da. Jolas librearekin ikasiko du eta emozioak landuko ditu, lagunekin harremanak jendarteratuko da, familiarekin denbora pasaz emozionalki beteko da, aspertzuz sortuko du. Ezinebestekoa dute haurrek haietzako kalitatezko denbora, beraz beraien hazieran hausnartu, hasiera zoroan hasi aurretik!

## KEZKAMUXELA



### AZALPENA:

Kezkamuxela panpin txiki bat da, eskuan sartu daitekeena.

Kexkamuxela haurrak egiten du eta ohe azpian edo ohetik gertu kokatzen du. Gauean egunean zehar izandako kezkak edo arazoak kontatzen dizkio eta berak gordetzen ditu.

Lasaitzeko modu bat da, arazoak kudeatzeko modu bat da.


### ZELAN EGIN BAT?:

1. Egur zati potolo bat hartu. Naturgune batera joan eta interesgarria iruditzen zaizuen egur zatitxo bat hartu.
2. Egurrari aurpegia egin, pertsonifikatu.
3. Ohial zatiekin, artilearekin, hariarekin... dekoratu, jantziak egin.
4. Polita izatea garrantzitsua da, haurrari gustatzea eta bere kuttuna izatea.




	D	A	E	K	
		E	A		
E				D	A
K	A				R
		K	R		
	E	R	D	U	

Zure eguneroko hizkeran, zer dira bi lagunok, txerriak edo urdeak? Sudoku honetan, URDEAK dira, eta hitz horren parte diren sei letrak beharko ditugu zuriuneak osatzeko (U, R, D, E A eta K). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.






SUDOKUA



## NON demontre...


Lagundu txerrikume honi gogoan duen adiskidea aurkitzen. Eroen gisan atera dira denak kortatik, eta orain bi lagunok ez dute elkar aurkitzen.

Zein da txerri malabaristaren itzal zuzena? Bide batez, margotu ezazu




## Itzalak

Ispiluan baleude bezala ikusten dituzun bi irudiok berdinak ematen dute baina ez da hala. Aldea dago batetik bestera. Guztira 19 ezberdintasun aurkitu behar dituzu.



## SOLUZIOAK





# Kontra

## Mundutik Aiarraldera

### Amir Azam

JAIOTERRIA  
PAKISTAN (1987)


BIZILEKUA  
AMURRIO

BIDAIAREN XEDEA

LAN BILA ETORRI ZEN AMURRIORA, AURTEN JAI  
HERRIKOEN TXUPINERO IZENDATU DUTE



### PAKISTAN



#### DESKRIBAPENA

Asiako hego-mendebaldeko estatu burujabea da. Lau probintziak eta hiru lurralde federalek osatzen dute estatua; etnikoki eta linguistikoki ere oso desberdinak diren lurraldeak. Pakistanek 1947an eskuratu zuen independentzia eta 1956an errepublika islamiko bihurtu zen.

#### AZALERA

881.913 kilometro koadro.

#### BIZTANLEAK

240,48 milioi biztanle.

#### HIZKUNTZAK

Urdua eta ingelesa dira hizkuntza ofizialak

#### Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte

Tirada: 10.000 ale.

Maiztasuna: Hamabostekaria

Lege gordailua: BI-1230-2013

Posta elektronikoa:

egunkaria@aiaraldea.eus

agenda@aiaraldea.eus

erredakzioa@aiaraldea.eus

Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus

Tifnoa: 688 62 53 94

Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia,

Laudio. Araba, 01400

Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00

Web-gunea: www.aiaraldea.eus

ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea

Aldizkariak ez du bere gain hartzen

iritzi artikuluetan, zein egindako

elkarrizketetan adierazitakoaren

erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE

BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu

Zabala, Iraia Pereiro, Genma Corbella,

Endika Arribas, Christian Alemany,

Gartzen Garaio, Aitor Fernandez,

Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi

Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde

Alberto Gutierrez, Eunat

Ekhiñe

## “Pozik gaude gure txosna ere jaien parte bilakatu delako, jende asko dator egunsentian kebab bila”

Amurrioko Jai Herrikoien txupinazoa jaurtitzeko ohorea izan zenuen abuztuan. Nola jaso zenuen gonbidapena?

Oso eskertuta jaso nuen albiste, oso pozik jarri nintzen. Ez nuen inondik inora espero. Jai politikak izan dira gainera, dena oso ondo joan da.

Noiz etorri zinen Amurrion bizitzera?

13 urte daramazkit Amurrion. Oso gustora nago herrian, Pakistanetik alde egin nuenean Barzelonara joan nintzen lehendabizi, eta hainbat urte eman nituen bertan. 2009an Amurrion iritsi nintzenetik ez dut beste inora joan nahi izan, pozik bizi naiz hemen.

Alde handia nabaritu zenuen Pakistan eta Euskal Herriaren artean.

Oso desberdinak dira. Alde batetik, Pakistanen segurtasun falta handia dago, hemen ez dagoena. Ohiturak ere zeharo desberdinak dira batean zein betsean, baina gutxika gutxika bada ere ohitzen ari naiz hemengo bzi-erritmorara.

Gauza asko izango dituzu faltan zure sorterritik.

Noski faltan ditudala gauza asko! Bi urtean behin Pakistanera bueltatzen naiz, ama, aita eta neba-arrebak bisitatzen. Hori da gehien dudana faltan: familia.

Zer da 13 urte hauetan Amurrioko

rriok eskaini dizungauzarik positiboena?

Lana eta egonkortasuna. Kebab jatetxe bat dut herrian bertan, lanik ez da falta eta negozioa ondo doa. Hori da nik gehien baloratzen dudana.

Azken urteetan txosna ere jai izan duzue jaietan.

Lan handiko egunak izaten dira. Izan ere, txosna eta jatetxea mantentzen ditugu zabalik jaiak iraun bitartean, beraz, egin beharrekoa bikoitza da; eguzkia aterate gaude lanean. 2012an jarri genuen txosna lehenengo aldiz.

Pozik gaude, gure txosna ere jaien parte bilakatu da; goizeko ordu-txikietan kebabak da gertatzen den jaki bakarra, gaz-

te asko datoz gosez gugana (barreak). Jaietako egunsentiak gogorak dira guretzat baina umorez hartzen ditugu.

Zer da Amurrioko jaietatik gehien gustatzen zaizuena?

Denetarik dago kalean: musika, ekintzak... Ahal dudan aldiro eskapada txiki bat egiten dut lanetik zerbait hartu eta jai-giroaz gozatzeko, lagunekin elkartu edo kontzerturen bat ikusteko.

Nola bizi izan dituzu azken jai hauek?

Lana gogorra izan da baina asko disfrutatu dugu. Lehen esan bezala, guztia ez da lan egitea eta egitarauaz gozatzeko aukera ere izan dugu.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA